


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación

# INTERSEKZIONALITATEA EH-KO ELKARTEEN DISKURTSO ETA EKINTZETAN

Autorea: Manex Basabe Beitia

Tutorea: Jone Martínez Palacios

Soziologia Gradua  
2021-2022 ikasturtea

## AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
1.1 Lanaren aurkezpena	3
1.2 Ikerketaren helburuak	4
2. Marko teorikoa	4
2.1 Intersekzionalitatearen jatorria	4
2.2 Intersekzionalitateari kritikak	6
2.3 Generoa eta intersekzionalitatea	6
2.3.1 Feminismo intersekzionala	8
2.4 Marxismo eta intersekzionalitatearen arteko talka	10
2.5 Black Lives Matter eta gizarte mugimenduak	12
2.6 Intersekzionalitatea gizarte mugimenduetan	13
3. Metodologia	15
4. Analisia	17
4.1 Matraka	17
4.1.1 Arlo teorikoa	17
4.1.2 Arlo diskurtsiboa	20
4.2 ELA	23
4.2.1 Arlo teorikoa	23
4.2.2 Arlo diskurtsihoa	26
4.3 SOS Arrazakeria	29
4.3.1 Arlo teorikoa	29
4.3.2 Arlo diskurtsiboa	31
5. Ondorioak	33
6. Azken gogoeta	36
7. Bibliografia	36
8. Eranskinak	38

## 1.SARRERA

### 1.1 Lanaren aurkezpena

GRAL-eko gaia esleitu baino lehenago argi neukan gizartearen funtzionamendua hobeto ulertzeko hurbilketa praktikoa bat egin nahi nuela. Interseksionalitatearen gaia egokitu zitzaidanean hainbat esparru ezberdin lantzeko aukera zabaldu zitzaidan, interseksionalitatearen baitan landu daitezkeen gaiak anitzak baitira. Gizarte mugimenduen arloak beti atentzioa deitu izan dit, eta bertatik jotzea erabaki nuenean interesgarria iruditu zitzaidan gizarte mugimenduen baitan interseksionalitateak nolako pisua zeukan aztertzea, maila teoriko zein praktikoan. Baina zergatik aztertu gizarte mugimenduak konkretuki? 2021eko abenduaren 18an, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean, Nerea Ibarzabalek ondorengo bertsoa bota zuen txapeldun izendatu ondoren:

*Gure etxeko andere guztiak  
nahi nituzke ohoratu  
egoerarik gogorrenetan  
ez direnak hondoratu  
bizikideei, bertsokideei  
bihotzetik bost olatu  
badago nondik jaso eta  
badago zer geroratu  
muga, kartzela, harresi, ibai  
Galerak zelan kantatu  
merkantzientzat bideak libre  
ta pertsonak zokoratu  
baina itzarrik eusten gaituzten  
ideia horiei oratu  
hormak higatu daitezkeelako  
ta arrakalak loratu*

Bertsoak tratatzen dituen gai ezberdinen artean bada landuko dudan gaiarekin zerikusia daukan ideia bat, *arrakalak loratzeko hormak higatzearena*. Nik aztertuko ditudan gizarte mugimenduek zapalkuntza mota bat lantzen dute -generoa, arraza, klasea eta adina-, lanketa horren helburua, demagun, genero rolen zapalkuntzaren atzean dauden arrakalak loratzea delarik, ondoren konponbide bat bilatzeko. Horretarako arrakala hori ezkututzen duen horma higatu beharra dago, baina arazoa horma bat baino gehiago daudela da. Meritu handia dute egunero hormak higitzen ibiltzen diren pertsonak, baina nahiz eta horma jakin bat higatu oraindik hainbat eta hainbat horma geldituko dira higitzeke. Interseksionalitatearen helburua horma horiek aldi berean higitzea da, azken finean horma guztiak, hau da, zapalkuntza guztiak, batera baitaude. Hau kontuan hartuta, gizarte mugimenduetan interseksionalitatea nola lantzen den ikustea da ikerketa honen helburu nagusia, interseksionalitatearen bidea arlo gehiagotara zabaltzeko asmoz.

## 1.2 Ikerketaren helburuak

### Ikerketa galdera

- Nolako garrantzia dauka interseksionalitateak Euskal Herriko elkarten diskurtso eta ekintzetan?

### Helburu nagusia

- Interseksionalitateak Euskal Herriko elkarteetan daukan garrantzia aztertzea.

### Zeharkako helburuak

- Elkartearen ardatz ez diren zapalkuntzen garrantzia ikertzea.
- Elkarten etorkizunerako interseksionalitate plangintza eta asmoak analizatzea.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1 Interseksionalitatearen jatorria

Interseksionalitatearen kontzeptuak azken urteotan garrantzi handia hartu du, horrek proposamen interseksionalen inguruko legimitatearen inguruan eztabaidak sortu dituelarik. Estatu Batuetako feminismo beltzak izan duen pisua ezagutzea eta ikusaraztea ezinbestekoa bada ere, interseksionalitateak ematen duen ikuspegia ez dela Ipar Amerikako testuinguruan soilik sortzen den fenomeno bat ulertzea garrantzitsua da, munduko beste toki batzuetan, era ezberdin batean izan bada ere, proposamen interseksionalak egon bazeudelako, hala nola Maria Rodo Zárate-ren ekarpenak Kataluniatik edota Maria Lugonesen bitartez Hego-Amerikako errealitatera moldatutako teoriak. Interseksionalitate kontzeptuaren genealogien gaineko begirada batez gain, proposamena bueltatzen den tokiak ezagutzaren ekoizpenean duen garrantzia agerian jarriko duen hurbilketa geografiko bat ere behar da, tokian momentuko egoera eta kondizioek nola baldintzatzen duten jakiteko. Hau da, interseksionalki begiratu behar zaie jatorriei eta interseksionalitatearen garapenei, ardatzek eta horien artean dituzten erlazioak kontuan hartuta.

Hau esanda, interseksionalitate terminoan murgilduko naiz. Interseksionalitatearen kontzeptua laurogeiko hamarkadaren amaieran agertu zen Estatu Batuetan, Kimberlé Crenshaw irakaslearen eskutik. Egileak, 1989 eta 1991ko bi artikulutan, emakume beltzen zapalkuntza eta diskriminazio esperientzia ulertzeko generoa eta arraza nola gurutzatzen diren

aztertu behar dela azaltzen du. Bere lanetan, ikuspegi juridiko batetik, emakume beltzek jasaten duten diskriminazio- eta indarkeria-esperientziak aztertzen ditu, desberdintasun-ardatzak bereizita tratatzeak dakartzan ondorioen inguruan ohartaraziz.

Lehenengo artikuluan, Crenshaw-k (1989), interseksionalitate terminoa erabiltzen da generoak eta arrazak elkarri eragiten dioten modu desberdinak aipatzeko eta emakume beltzek lan-merkatuan jasaten dituzten diskriminazioak ezagutarazteko. Horretarako, General Motorsen enpresaren kasua aztertzen du; bost emakume beltzek diskriminazioa jasaten zutela salatu zuten, lanpostu jakin batzuetan kontratatzen ez zituztelako. Auzitegietan, enpresak argudiatu zuen emakumeak kontratatu zituela (zuriak) eta pertsona beltzak ere (gizonak), beraz, enpresak ez zuen diskriminaziorik egiten ez generoagatik ez arrazagatik. Diskriminazio-arrazoi desberdinak konbinatzearen ondoriozko diskriminazio espezifikoaren egoera ez zen lege-mailan jasotzen, eta, ondorioz, emakume beltzak babesik gabe geratzen ziren. Egileak egindako azterketan, diskriminazioaren aurkako legeak oinarritzen ziren esparrua neutro faltsuetatik abiatzen zela erakusten du: arrazarentzat gizon beltzek jasaten zuten diskriminazioa zen eredu, eta generoarentzat emakume zuriek jasaten zutena. Alde horretatik, << emakume beltzak babestuta daude, beren esperientziak taldeko batzuenekin bat datozen neurrian >> (Crenshaw, 1989:143). Haien ekarpenek erakusten dute emakume beltzek diskriminazio zehatz bat jasaten zutela, eta haien esperientzia ezin dela ulertu arrazismoa edo sexismoa modu isolatuan behatuz, haien elkarrekintzak eratzen baitu jasaten duten diskriminazioa.

Bigarren artikuluan, Crenshaw-k (1991), analisi-esparru bera aplikatzen dio emakume beltzen aurkako sexu-indarkeriari. Hainbat kasu aztertuz, emakume beltzen esperientziak arrazismoaren eta sexismoaren konbinazioaren emaitza izaten direla erakusten du, eta nola emakumeak ez diren agertzen diskurtso feministetan eta arrazakeriaren aurkako diskurtsoetan. Horrez gain, etxeko eremuan eta bortxaketetan gertatzen den indarkeria matxista du ere ardatz, eta hainbat dimentsiotan egituratzen ditu etxeko biolentziaren inguruan.

Interseksionalitate terminoa 90.hamarkadan erabiltzen hasteak ez du esan nahi lehenago ondoren interseksionalitatea izango denean oinarrituta zeuden mugimenduak ez zeudenik. 1973.urtean Boston-en *Combahee River Collective* talde feminista sortu zen, ondorengo helburuarekin:

*“Gaur egun, gure politikaren adierazpen orokorra arrazaren, sexuaren, heterosexualaren eta klasearen zapalkuntzaren aurkako borrokarekin konpromiso aktiboa dugula da, eta gure zeregin berezitat ikusten dugu azterketa eta praktika integratuak garatzea, zapalkuntza-sistema nagusiak elkarri lotuta daudelako.”*

The Combahee River Collective Statement, 1981:213

Angela Davis-en *Reflections on the Black Woman's Role in the Community of Slaves* (1972) bezalako liburuetan oinarrituta haien helburu nagusia genero, arraza, heterosexualitate eta

klase zapalkuntzari aurre egitea zen. Horrelako taldeetan parte hartzen zuten pertsona askok jada haien militantzia politikoa beste esparru subertsibo batzuetan eraman zuten aurrera, Black Panther bezalakoetan, eta 70.hamarkadatik aurrera talde hauek arrakastatsuak bilakakutzen hasi ziren, geroz eta jende gehiago haiengana hurbiltzen zelarik.

## 2.2 Interseksionalitateari kritikak

Arestian aipatu bezala interseksionalitatea ez zaio soilik Estatu Batuetako feminismo beltzari esleitzen, baina onartu beharra dago pisu handia izan duela alternatiba interseksionalen garapenean. Puntu honetara helduta, autore ezberdinek talka egiten dute interseksionalitateak izan beharko litzukeen lehentasunen inguruan. Autore batzuek Estatu Batuetako emakume beltzetan bereziki oinarritu beharko litzatekeen zerbait dela defendatzen duten bitartean beste batzuek munduko beste esparru batzuetako errealitateetara estrapolatu beharko litzatekela esaten dutelarik.

Lehenengo proposamenari helduz, Nikol G. Alexander-Floyd (2012) autoreak interseksionalitatea emakume beltzen proiektu politikoa dela defendatzen du, interseksionalitatearen inguruko ikerketak emakume beltzetan eta ez beste batzuetan oinarritu beharko liratekeela argudiatuz. Autoreak interseksionalitateak berak daukan ikerketa ahalmena Estatu Batuetako emakume beltzen inguruan ikertzen ez denean bere eragina galtzen duenaren ideia babesten du.

Ikuspuntu honi aurre eginez, Maria Lugones (2008) bezalako autoreek interseksionalitatea Estatu Batuetako emakume beltzez gain beste esparru batzuetara zabaltzeko premiaz hitz egiten du, feminismo dekolonialaren defentsa eginez eta interseksionalitatearen ideia zapalkuntza eta egoera gehiagotan aplikatuz. Antzeko ikuspuntua dauka Nira Yuval-Davis-ek (2011), bere ustetan interseksionalitateak munduan zehar ematen diren zapalkuntza eta pribilejio egoerez hitz egiteko balio duela esaten baitu. Yuval-Davis-ek ondo azaltzen du zapalkuntza egoera bat egoteko pribilejio egora bat egon behar dela, eta zapalkuntza ulertu eta konpontzen saiatzeko ezinbestekoa dela pribilejio egoeran dagoen jendea aztertzea eta pribilejioaren nondik norakoak ikertzea.

## 2.3 Generoa eta interseksionalitatea

Interseksionalitateak generoaren lanketan izan duen eragina ulertzeko ezinbestekoa da feminismo beltzak interseksionalitatearen auzia genero gaitan sartzearen apustua ulertzea, bertatik abiatu baitzen mugimendu feministen eta interseksionalitatearen arteko lankidetzak. Aurreko ataletan aipatu bezala, nahiz eta interseksionalitate terminoa 90. hamarkada arte ez zen agertu, hori baino lehenago jada proposamen interseksionalak mahai gainean zeuden,

nahiz eta beste izendapen bat eduki. Bertatik abiatuko naiz generoaren hurbilpen interseksional bat egiteko.

Feminismo beltzeko egile garrantzitsu bat Mercedes Jabardo Velasco da. Egile honek feminismo beltza feminismoaren barruan korrante kritiko gisa agertzen dela azpimarratzen du, feminismo hegemonikoa zalantzan jartzeko asmoz (zuria, mendebaldekoa eta klase ertain-altukoa). Hau da, feminismo zuria kritikatu du zapalkuntzaren definizioaz jabetzeagatik eta istorio bakar bat asmatzeagatik, mugimendu feminista zuria protagonista duena, bere jatorria Ilustrazioan kokatzen delarik. Ez dugu ahaztu behar feminismo beltza bi mugimenduren (abolizionismoa eta sufragismoa) bat-egitetik sortu zela, Estatu Batuetan une bereziki zailtan, non bi mugimenduetan presentzia nabarmena izan arren, arrazakeriak eta sexismoak emakume beltzak bietatik kanpo utzi zituzten.

Feminista zuriak ez bezala, feminista beltzek hasieratik ulertu zuten aliantzak egitea ezinbestekoa zela. Lehenik eta behin, emakume zuriak emakumeen sufragioaren aldeko borrokara batu ziren. Bigarrenik, beren etnia-arrazako gizonekin borrokatzen hasi ziren jasaten zuten arraza zapalkuntzagatik. Hirugarrenik, emakume beltzekin, arrazismoa AEBetako mugimendu sufragistara iritsi zenean, nahiz eta emakume beltz hauek baztertuak izan ziren, emakume zurien sufragioa lortzeko asmoz.

Ildo horri jarraituz, feminismo beltzak erakutsi zuen feminismo hegemonikoak talde baten interesak aldarrikatzen zituela (emakume zuriak, mendebaldekoak, heterosexuak eta klase ertainekoak), emakume pobreen, etorkinen, homosexualen eta afrikar ondorengoen eskaera-eta premia-multzoa alde batera utziz. Baina feminismo zuria ez bezala, Simone de Beauvoirrengandik eta bere baieztapenetik indarra hartzen duena baita -ez da emakume jaiotzen, emakume izatera iristen da- feminismo beltza ukaziotik abiatzen da, Sojourner Truth-en akaso ez naiz emakume bat? (Jabardo Velasco, 2012) galderatik abiatzen direlarik.

Esaldi horrek izugarritzko pisua dauka atzetik, gauza askori egiten baitio erreferentzia. Puntu honetara helduta jada, nire ustez, ez die gizonari interpelatzen, hau da, gogoeta hori ez doa gizonari eta haien posizioari zuzendua, feminismo zuri hegemonikoari baizik. Emakume zurien interesak soilik defendatzean gizonak emakumeekin egin zutena errepikatzen dabilta, kolektibo jakin bat bestearen gaineratik jarritz eta soilik bere interes propioak defendatuz. Emakume beltzei, emakume zuriei bezala generoaren ardatzak zeharkatzen die, biak ala biak zapalduen aldean gelditzen direlarik, baina emakume zuriei ez bezala emakume beltzei arrazaren ardatzak ere zeharkatzen die, horrek emakume beltzek gizartean daukaten zaugarritasun egoera larriagotzen duelarik. Egoera honek ondorengo puntura eramaten nau; Zein punturarte dira bateragarriak feminismo beltzaren eta feminismo zuria interesak ikuspegi interseksionala gabe? Galdera honi erantzuteko Judith Butler-engana joko dut.

1990.urtean Butler-ek *Gender Trouble: Feminism and the Subversion Of Identity - El género en disputa* gaztelaraz- liburua idatzi zuen, bertan, beste gauza askoren artean, emakume hitzak dituen ikuspuntu desberdinez mintzatzen da, ondorengo gogoeta egiten duelarik:

*“Nor bait «emakume bat» bada, argi dago hori ez dela bat den guztia; kontzeptua ez da zehatza, ez genero jakin bat duen «pertsona» batek bere generoaren ezaugarri espezifikokoak gainditzen dituelako, baizik eta generoa ez delako beti modu koherentean edo testuinguru historiko desberdinetan eratzen, eta arraza-, klase-, etnia- eta eskualde-modalitateekin gurutzatzen delako, diskurtsoaren arabera eratutako identitateekin. Horrela, ezinezkoa da «generoa» eta etengabe ekoizten eta mantentzen den elkargune politiko eta kulturalak bereiztea.”*

Butler, 1990, p.49

Egileak erakusten du generoa ezin dela sortu eta mantentzen den testuingurutik bereizi, testuinguru hori historikoa eta geografikoa izateaz gain, beste dimentsio batzuekin ere lotzen baita. Hemen interseksionalitaterako funtsezkoa dena Butlerrek proposatzen duen baina garatzen ez duen << ez-zehatz (no-exhaustivo)>> kontzeptua da. Emakumea pertsona bat zer den zehatz-mehatz ez dela esateak agerian uzten du emakumea pertsonaren posizio zehatz bati buruz ari dela soilik, ez pertsona osoari buruz, beraz, emakumeak ezin du pertsona baten beste posizioen berri eman. Esparru interseksionalean, emakumea ez da izen bat bezala hartu behar, baizik eta helburu bat bezala, pertsona batek izan ditzakeen adjektibo ugarietako bat. Ikuspuntu honekin esan nahi dena da emakume izatea ezin dela beste adjektibo guztien gaintik kokatzen den zerbait izan, hau da, ezin dela *ni emakumea naiz* esan eta beste ezaugarri guztiak -zuri/beltza, homosexual/heterosexual, aberats/txiro...- bigarren maila batean utzi, beste ezaugarri horiek, zapalkuntzaren ikuspuntutik emakume izatea bezalako garrantzia dutelarik.

Planteatutako galderara itzuliz, argi gelditzen da generoaren eraikuntzak ezaugarri jakin batzuk dituela testuinguru geografiko eta historiko bakoitzean, testuinguru horretan beste zapalkuntza motek eragin propioa dutelarik, beraz, ez dauka zentzurik feminismo zuriak eta feminismo beltzak lanketa ezberdinak egitea, azken finean leku berberekoak izanda leku horretako generoaren eraikuntza berdina baita feminismo zuri zein beltzarentzat. Hau kontuan hartuta, ez dauka zentzurik feminismo beltz eta zuria bateratzea ikuspegi interseksional gabe, aipatu bezala generoaren eraikuntza horretan beste pribilejio-zapalkuntzek ere eragin zuzena dutelako eta ikuspegi interseksional gabe ezinezkoa da horien eragina aztertzea.

### 2.3.1 Feminismo interseksionala

Beharrezkoa da norberak lantzen duen zapalkuntzatik haratago joatea, nahiz eta oraindik bide luzea gelditzen den; Ziurrenik mugimendu feminista izan da tradizionalki ardatz gehien bildu dituen eta begirada generotik haratago zabaltzeko ahalegin handiagoa egin duena. Gehienetan, beste ardatz batzuen kontsiderazioa prozesu gatazkatsu eta mingarria izan da, mugimenduaren barruan bazterketak ikusarazteko barne-borroka luzea eragin duelarik, baina borroka horrek gaur egun feminismoek botere-egitura eta menderatze-modu anitzen funtzionamendua eta elkar gurutzatzeko modua ulertzeko tresnak izatea ekarri du. Erraza da



lesbianen aldarrikapenak ikustea, osasun publikoaren, lan-erreformaren, etxebizitza-eskubidearen edo gerraren aurkakoak mobilizazio feministetan. Eta esparru intersekzionalak balio diezaguke ulertzeko, feminismoak bereziki genero-gaietan zentratu arren, desberdintasuna ezin dela ikuspegi horretatik bakarrik ulertu.

Erronka feministak berrikusi, txertatu eta eraldatzea da, beste desberdintasun-ardatz batzuek eragindako bazterketak eta indarkeriak onartzuz, generoaren zentraltasuna ahaztu gabe. Zapalkuntza-ardatz askotan duen posiziotik, borroken arteko bereizketak eta hierarkizazioak zentzua galtzen du, ez du zentzurik haien arteko lehiak, alde batetik jasotzen ez dituen zapalkuntzak beste aldetik jasoko dituelako, eta bestetik, jasotzen ez dituenak beste pertsona batzuei eragingo dielako. Feminismo intersekzional batek genero-gaiak erdigunean jarri behar ditu derrigorrez, feministek egiten ez badute ez duelako inork egingo, baina, era berean, ulertu behar da generoa beste ardatz batzuen bidez eratzen dela, desberdin eragiten dietela modu desberdinean kokatutako pertsoneri, eta baliteke emakumeek edo beren genero-identitateagatik zapaldutako beste pertsona batzuek dituzten kezkek generoarekin zerikusi nagusia ez izatea. Ildo horretan, feminismoek eta barne-eztabaidek ardatzen arteko harremanari buruz egindako bidearen ondorioz, mugimendu intersekzionala izan daiteke. Izan ere, gorputzak, bizitza eta harremanak politikaren erdigunean jartzea ez da «emakumeen kontua», kapitalismoaren, arrazismoaren, sexismoaren eta beste edozein zapalkuntza-moduren osoko zuzenketa baizik.

Azkenik, desberdintasun hori esparru intersekzionaletatik kudeatzeko moduari buruzko proposamen zehatz gisa, uste dut Nira Yuval-Davisen (1994) «zeharkako politika» -*Transversal politics*- kontzeptua oso erabilgarria dela. Egileak argi eta garbi bereizten ditu jarrerak eta balioak, eta zeharkako politika bat partekatutako balioetan oinarritu behar dela defendatzen du, eta ez identitateetan. Hori erakusteko, bi printzipio hartu behar dira kontuan: sustraitzekoa (*rooting*) eta desplazatzekoa (*shifting*). Hau da, talde jakin batzuk defendatzen dituzten pertsonak, beste talde batzuekiko elkarrizketan, beren posiziotik abiatu behar dute (errotzea), baina, aldi berean, elkarrizketatzen ari diren pertsonaren posizioarekin enpatizatu behar dute (desplazamendua). Proposamen hau interesgarria da, kokaturiko epistemologiak ezagutzeko aukera ematen duelako, hau da, hainbat posiziotatik mundua modu desberdinean ikusten dela, modu esentzialistan hartu gabe eta beste taldeen aurkako lubaki politiko gisa hartu gabe. Norberaren zapalkuntza-esperientzia partekatuetatik abiatzea ahalbidetzen du, baina horrek ez du eragozten balio jakin batzuk partekatzen dituzten eta jarrera desberdina duten beste pertsona batzuekin aliantzak sortzea, zapalkuntza mota ezberdinen aurrean indarrak batzeko eta batera aurre egiteko asmoz.

## 2.4 Marxismo eta intersekzionalitatearen arteko talka

Historikoki marxismoak eta intersekzionalitateak talka handiak izan dituzte, biek ala biek beste mugimendua arrazoi ezberdinengatik kritikatu dutelarik. Tarte honetan konfrontazio

horren nondik norakoak aztertuko ditut, ondoren bi ikuspuntuek gizarte mugimenduetan izan dezaketen erabilera aztertuko.

Lehenik eta behin, interseksionalitatearen teorikoen esanetan marxistek antagonismo sozial, politiko, kultural eta ekonomiko guztiak klasera murrizten dituztela argudiatzen dute. Izan ere, marxista teoriko batzuek ez dute arraza, genero edo orientazioari buruzko edozein eztabaida esanguratsurik egiten, Marxek Kapitalean egin zuen bezala. Arraza, generoa eta sexualitatea zapalkuntzaren eztabaidan termino garrantzitsu gisa ezabatze hori interseksionalitatearen teorikoek eta, oro har, feministek marxismoaren tradizionalaren muga gisa identifikatu duten joera bat da.

Zapalkuntza sistema bakar baten teoriak, klasea kapital-harremanen bigarren mailako ondorio gisa bakarrik aztertzen dutenek, ezin dituzte behar bezala azaldu koloretako emakumeek edo langile-klaseko homosexualek aurrez aurre dituzten zapalkuntza-modu espezifikoak. Badirudi teoria horiek oraindik gizon zuriak, enpleguak, ezkonduak eta heterosexuak (eta haien emazteak) hartzen dituztela ikerketarako subjektu bakartzat. Argi dago azterketa hori subjektu gehiagori zabaldu behar zaiela, baina kasu askotan oso zaila izaten da, desberdintasun horiek ezinezkoa bilakatzen baitute batera egotea, Audre Lord-ek *Sister Outsider* liburuan ondo azaldu zuen bezala:

*“Bada aizpatasun hitzaren menpean esperientzia homogeneroa izateko asmo bat, praktikan existitzen ez dena... Egia esan, desberdintasun erreala handiak daude gure artean arrazari, adinari eta sexuari dagokienez, baina ez dira gure arteko desberdintasun horiek bereizten gaituena, ezberdintasun horiek onartzeari uko egiten diogula baizik.”*

Lorde, 1984, 115. or.

Askotan “aizpatasun unibertsal” baten kontzeptuak atzean dauden ezberdintasunak estaltzeko balio du, Lorde-k dioen bezala mugimendu homogenero bat izateko asmoarekin, nahiz eta praktikan homogeneotasun hori ez den existitzen, eta existituko balitz ere ez zuen zentzu asko edukiko ikuspegi interseksional batetik ikusita. Interseksionalitateetik marxismo klasikoa kritikatzeko dutenek zapalkuntza ardatz ezberdinen lanketa egitea beharrezkoa dela defendatzen dute, ezberdintasunekin lanean hasteko, haiei uko egin gabe, ezberdintasunean baitago mugimendu interseksional baten indarra. Argi dago gizarte mugimendu baten baitan hainbat esperientzia ezberdin biltzen direla, esperientzia horiek karga bat izan beharrean gizarte mugimenduaren bultzindarra izan behar direlarik. Hori lortu ezean, ezinezkoa izango litzateke gizarte mugimendu interseksionala hegemoniko bat lortzea.

Txanponaren beste aldean teoriko marxistak daude, interseksionalitateari kritika ezberdinak egin dizkietenak, Martha Gimenezek egiten duen kritika, esaterako. Espero zen bezala, kritika horietako askok interseksionalitateak zapalkuntzaren funtsezko ardatz gisa klasearen analisi azpigaratua duela argudiatzen dute.

Martha Gimenezen aburuz, klase-erredukzionismoaren beldurrak azterketa intersekzionalak gehiegi egitera eramanez, klase-ikuspegia ia erabat alde batera utziz:

*“AGK [Arraza, Generoa eta Klasea] ikuspegian klasearen, arrazaren eta generoaren arteko ezberdintasun kualitatiboaren ezabatzea garrantzitsua da, orain klase-harremanetatik kanpo desgorpuztuta agertzen diren "menderatze eta menderakuntzako oinarrizko harremanekin" tratatzeko. "Klase-erredukzionismoa" baztertzeko ahaleginean, klasearen eta beste zapalkuntza-modu batzuen arteko baliokidetasuna postulatzeari, AGKren ikuspegiak ukatu egiten du klasearen funtsezko garrantzia”*

Gimenez, 2001, 31.orr.

Gimenezen kritika klasearen azpigarapenetik haratago doa; aitzitik, analisi intersekzionalak, sarritan, klasearen beraren izaera gaizki interpretatzeko efektua dute, klasearen eta beste zapalkuntza-modu batzuen arteko baliokidetasun kualitatiboa proposatuz. Gimenezek argudiatzen du klase-zapalkuntzaren antolaketa badela zerbait arraza edo generoari dagokionez desberdina egiten duena. Itxuraz desberdina' esatean ez dela oinarrizkoagoa edo primarioagoa adierazi behar da; aitzitik, klase-zapalkuntza bereizgarria dela esan nahi du, eta horren ondorioz, politikoki eta teorikoki arraza eta generoa baino tratamendu desberdinagoa eskatzen duela. Tratu bereizgarri horrek kapitalismoaren azterketa osoa eskatzen du, ekoizpen eta erreproduzio, metaketa eta harreman materialen sistema eta egitura den aldetik, sustraiak ekonomia politikoan eta kulturaren, ideologiaren eta politikaren alderdi anitzeko eremuetan dituelarik.

Landutako bi ikuspuntuak haien aldeko eta kontrako argudioak dituzte, baina konpartitzen dituzten puntuak era badituzte. Nik kapitalismoa estruktura kritiko bezala ulertzen duen ikuspegiarekin bat egiten dut, Gimenezek dioen bezala kapitalismoa patriarkatua, arrazakeria, kolonizazioa eta inperialismoa sortu zituen sistema nagusia delarik, baita askotan aipatzen den proletargoaren esplotazioaren eraketaren erantzule ere. Aipatutako zapalkuntza horiek kapitalismoaren zati diren heinean, kapitalismoa teoria intersekzionalaren erdigunean jartzea beharrezkoa da, beti ere klasea antagonismotzat hartzen ez duen intersekzionalitate bat izanda. Hau hobeto ikusarazteko, berriz ere Combahee River Collective-ek 1977an egindako aldarria funtsezkoa da:

*“Konturatzen gara herri zapaldu guztien askapenak kapitalismoaren eta inperialismoaren sistema politiko-ekonomikoak eta patriarkatua suntsitzea eskatzen duela. Sozialistak gara, lana lana egiten dutenen eta produktuak sortzen dituztenen onura kolektiborako antolatutako behar dela uste dugulako, ez patroiaren onurarako. Baliabide materialak zuzen banatu behar dira baliabideak sortzen dituztenen artean... Klase alternatiba ez dugu soilik arraza eta generoak pisurik ez duten langileentzat artikulatu behar, baizik eta genero eta arraza zapalkuntza haien egunerokotasunean pairatzen duten langileentzat ere.”*

The Combahee River Collective Statement, 1977

Nahiz eta haien burua sozialistatzat hartu, ez dute ukatzen klase zapalkuntzaz haratago zapalkuntza mota gehiago daudenik, zapalkuntza horiek ere haien garrantzia dutelarik, eta sistema kapitalistaren ondorio diren heinean haientzat ere alternatiba bat artikulatzea beharrezkoa den. Argi dago zapalkuntza konkretu bat soilik lantzen duten gizarte mugimenduak egongo direla, baina behar-beharrezkoa da analisi horretatik haratago joatea eta zeharkatzen gaituzten zapalkuntzen azterketa egitea, alternatiba sendoak eraikitzeke asmoz.

Gizarte mugimenduen kasuan, ikusi den bezala, nahiz eta kasu batzuetan kontrako iritziak egon, ikuspegi marxista ez da interseksionalitatearekiko baztertzailerik izan behar, are gehiago, alternatiba sendoak eraikitzeke integratzailea izan behar da, eta biek ala biek beste mugimenduen ikuspuntuak barneratzea interesgarria izango litzateke alternatibak artikulatzeko. Hala ere, lanketa honetan zehar ikusi den bezala, gizarte mugimenduen helburua alternatiba integral eta integratzaileak lortzea da, eta helburua hori den heinean oso aberasgarria da haien ardatzetik haratago joatea, esperientzia, emozio eta lanketa ezberdinak integratzea eta horrela mugimendu hegemoniko batera hurbildu daitekeen alternatiba bat gorpuztea.

## 2.5 Black Lives Matter eta gizarte mugimenduak

Gizarte mugimendu bat gizabanako talde antolatu bat da, protestaren eta beste tresna batzuen bidez gizartearen esparruren batean aldaketa bilatzen duena. Gizarte-mugimenduek pertsona kopuru handiek osatzen dute, antolatuta gizarte-aldaketa bilatzen dutelarik. Gizarte mugimenduak, orokorrean, zapalkuntza, injustizia, jazarpen... konkretu batean zentratzen dira, arazo hori ezagutzera ematen dutelarik, konponbideak bilatzen dituzten bitartean. Interseksionalitateak gizarte mugimenduek zapalkuntza askori aldi berean aurre egiteko aukera ematen die, zapalkuntzak multifaktorialak direla onartzearekin batera horiei aurre egiteko alternatiba indartsuagoak gorpuzteko aukerak indarra hartzen dutelarik. Interseksionalitatea kategoria praktiko eta dinamikoa da, baita ezegonkorra ere (Hancock, 2016), hainbat erabilera eta inbertsio aktibistaren mende dagoena. Estatu Batuetan, adibidez, *#BlackLivesMatter* mugimendua analisi interseksionalak esplizituki aldarrikatzen dituen lehen mugimendu sozialetako bat da (Taylor, 2017).

Marko honetan kokatzen da aipatutako *Black Lives Matter* mugimendua. 2013an, poliziak George Zimmerman hil arte tirokatzeagatik absolbitu ondoren, mugimendua *#BlackLivesMatter* traolarekin hasi zen. Mugimendua komunitate afroamerikarreko hiru liderrek sortu zuten: Alicia Garza-k, Patrisse Cullors-ek eta Opal Tometi-k. *Black Lives Matter* Eskubide Zibilen Mugimendu Afroamerikarrean, *Black Power* mugimenduan eta 1980ko feminismo beltzaren mugimenduan oinarritu zen, besteak beste.

*Black Lives Matter*-ek liberazio beltzeko mugimenduetatik kanpo egon ohi ziren taldeak gehitu zituen; Adibidez, erakundearen web-orriak dioenez, Black Lives Matter «Poliziak eta zaintzaileek egindako arraza beltzeko pertsonen judizioz kanpoko erailketetatik haratago doan

ekarpena da», mugimendua interseksionalitatearen baitan kokatzen delarik. *Black Lives Matter*-ek pertsona beltz homosexualetan, transexualetan, aniztasun funtzional bat duten pertsonetan, dokumenturik gabeko pertsona beltzetan, aurrekariak dituztenetan, emakumeetan eta generoko alorreko bizitza beltz guztietan bizi dela defendatzen du.

Alicia Garza sortzaileak honela laburbildu zuen *Black Lives Matter* -en atzean dagoen filosofia: «*Black Lives Matter* diogunean, beltzek beren oinarrizko giza eskubideak eta duintasuna galtzen dituzten moduez ari gara. Pobrezia beltzaren eta genozidioaren aitortpen bat da, indarkeria-egoera bat da. Milioi bat pertsona beltz kartzelan giltzapetuta daudenaren aitortpen bat da. Espetxeetan edo kartzeletan dauden pertsonen erdia beltzak dira, eta hori estatuaren indarkeriazko ekintza bat da.».

Black Lives Matter mugimenduaren helburua ez da beste talde etniko batzuek jasaten dituzten diskriminazio-egoerei garrantzia kentzea; aitzitik, aurre egiten dieten arrazakeria eta desberdintasunak onartzen ditu, baina mugimendu horrek arreta jarri nahi du biztanleria afroamerikarrak aurrez aurre dituen diskriminazio interseksionaleko egoeretan, egoera bereziki ahulean jartzen baititu.

Estatu Batuetan pertsona beltz baten erailketa dagoenean, afroamerikarrek jasaten dituzten diskriminazio interseksionaleko egoera berriz plazaratzen da, fokoa berriz polizien gehiegikerien zergatian jarriz. Honek politikariek esku-hartzeko eta diskriminazio horren kausei beren interseksio guztietan heltzeko balio behar du.

Ikuspegi interseksionalak *Black Lives Matter* mugimenduari zapalkuntza arrazialetik haratago joatea ahalbidetzen dio, pertsona afroamerikarrek jasaten duten jazarpena ez baita soilik beltza izatearren. Gizarte mugimendu bat den heinean haien helburu nagusia iritzi publikoari pertsona beltzekin gertatzen ari denaren berri ematea eta konponbideak bilatzea da, eta hori lortzeko ezinbestekoa da herritarren laguntza edukitzea. Herritarren laguntza edukitzeko, ikuspegi interseksionala oso baliagarria da, zapalkuntza mota ezberdinak batzeko balio duelako, batuketa horren bitartez mugimenduak indar gehiago eduki dezakelarik.

## 2.6 Interseksionalitatea gizarte mugimenduetan

Atal honetan zehar mugimendu askatzaileen baitan dauden oztopo eta aukeren lanketa egin dut, baina orain interseksionalitatea gizarte mugimenduetan nola gorpuztu beharko litzatekeen ikusiko dugu, marko teorikoan ikusitako Crenshaw-ren eta Hill Collins-en ekarpenez baliatuz.

Crenshaw-ren proposamenetara itzuliz, egilearen ustez arrazaren eta generoaren arteko interseksioa ikusezin bihurtzeak alde batetik desberdintasun ugari dituzten gizabanakoak eta gizarte-taldeak bazterretara mugitzea eragin dezake. Bestalde, arrazakeriaren aurkako mugimenduen estrategia politikoek genero-arrazoiengatiko mendekotasuna erreplikatu eta

indartzea eragin dezake, mugimendu feministek arrazarekiko mendetasuna indartzen duten bezala (Crenshaw 1991).

Bere argudioek, beraz, estrategia politiko desberdinek (gizarte-mugimenduek edo politika publikoek) talde-identitatearen ikuskera murriztuak kritikatzeko dituztela diote, baina ez hainbeste identitate-kategoriak deuseztatzeko, baizik eta konplexuagoak bihurtzeko. Identitateak sozialki eraikitzen dira, baina gure munduan esanahi handia dute egilearentzat, eta, gainera, gizarte-talde desabantailatsu askoren erresistentzia- eta ahalduntze-espazioa izaten dira.

Crenshawren ustez, beraz, identitateak sozialki eraikitzeak ez du esan nahi «beltzak» edo «emakumeak» (1991) bezalako zerbait ez dagoenik edo kategoria identitario horien inguruan politikoki antolatu behar ez denik. Aitzitik, egilearen ustez, kontua da onartzea gizarte-talde baten agintariaren osaera identitarioa hainbat kategoriatan eragiten duen koalizioa dela. Ildo horretan, berdintasunaren aldeko estrategia politikoak identitatearen kontzepzio konplexuago batetik abiatzea proposatzen du.

Crenshawren ikuspegi hori, emakume afroamerikarren posizio sozialaren azterketan oinarritzen dena, Patricia Hill Collins (2009) ekintzaile eta teoriko feminista beltzaren ekarpenean aurkitzen dugu, bere testuak, aldi berean, behin eta berriz aipatu baitira interseksionalitatearen teoriaren barruan. Collinsen proposamena zapalkuntza-ardatzak matrize batean elkarlotuta bezala kontzeptualizatzea da, non matrize horren esparruan banakoak botere-posizio desberdin eta aldakorretan eraten diren. Dominazio matrizearen metafora horrekin, zapalkuntza-lerroen arteko interakzioa eta interdependentzia azaltzen ditu, eta pertsonak eta taldeak aldi berean zapaltzaile eta zapaldu posizio desberdinetan egoteko aukeraz ohartarazten du. Collinsen ustez, beraz, ezin da kategorien ikuspegi hierarkikorik hartu eta a priori ezetsi berdintasunaren dimentsio bakar baten nagusitasuna.

Erresistentzia gauzatzeko, egileak funtsezkotzat jotzen du taldeek matrizean duten posizio berezia ikusaraztea, aitortzea eta borrokatzea. Emakume beltzen posizioan oinarrituta, ondorioztatzen du emakume horien artean zapalkuntza-esperientzia desberdinak egon arren eta planteatzen zaizkien erroen ematen dizkieten erantzunak desberdinak izan arren, erroen komunak dituztela: besteak beste, etxebizitza, lana, hezkuntza eta abar eskuratzeko aukera okerragoa izatea.

Begirada horren azpian, Crenshawk egiten duen bezala, identitate sinplearen politikari kritika bat egiten dio, eta kritika horrek ez du bat egiten kategoria horien identitatearekin, guztiz kontrakoa. Collinsen ustez, jarrera komun horiek aitortu behar dira, eta ahalduntzerako eta gizarte-aldaketarako espazio bihurtu behar dira gizarte-bizitzaren esparru guztietan. Ildo horretan, erakusten du, adibidez, emakume afroamerikarren pentsamendua sistematikoki baztertuta izan dela agenda akademikoetatik, eta jarrera horren ikuspuntua ekarriko duen pentsamendu beltz feminista bat egoteko beharra aldarrikatzen du, ikuspuntu bat, nahitaez partziala, beste edozein posizioarena bezalakoa. Posizio ororen partzialtasun horrek eta horrek sortzen duen ezagutza kokatuak zeharkako elkarrizketa eta koalizioa egiara hurbiltzeko edo politika arloan interseksionalitateari eta aldaketa sozialari heltzeko bide gisa defendatzen

garamatzala dio egile honek. Tesi honetarako bi ikuspegi horien funtsezko alderdi bat da agenda akademikoen, gizarte-mugimenduen, politika publikoen edo zuzenbidearen bidez politikoki landu behar diren talde barruko desberdintasunak daudela ikusarazteari ematen dioten garrantzia. Beraz, interseksionalitatearen kontzeptuak karga politiko handia erakusten du, eta agenda horiek desoreka interseksionalaren ekoizpenean eta konponbidean duten zeregin nagusira garamatza. Era berean, bi ekarpen horiek egitura sozial eta politikoetako desberdintasunaren ekoizpenaren berri ematen dute, emakume afroamerikarrek talde sozial gisa duten desabantaila- eta marjinaltasun-kokapenari buruzko begirada baten bidez. Hala ere, ondorengo ekarpenetan ikus dezakegu kontzeptu hori zehaztuz doala eta, bereziki, bi egileek gizarte-talde jakin baten kokapenean eta agentzian jartzen duten foku hori desberdintasun-sistemen menderatze-prozesuetara eta funtzionamendura bideratzen dela.

Ez dugu ahaztu behar, Hill Collins-ek ohartarazten duen bezala, gizarte mugimendu baten baitan zapaldu-zapaltzaile erlazioak erreproduzitzen diren harremanak egon daitezkeela, are gehiago mugimendu interseksionaletan. Egoera honen aurrean behar-beharrezkoa da zapaldu-zapaltzaile dikotomia horretatik haratago joatea eta batzen gaituzten berdintasunek banantzen gaituzten desberdintasunek baino indar gehiago edukitzea eta bi posizioak elkarlanean aritzea, mugimenduaren onerako.

### 3. METODOLOGIA

Jada aipatu den bezala, GRAL honen helburua interseksionalitateak gazteen gizarte mugimenduetan daukan pisua aztertzea da, maila diskurtsiboan zein praktikoan. Helburua betetzeko asmoz, lanketa hiru esparru ezberdinetan egin da; Azterketa bibliografikoa, hautatutako gizarte mugimenduek egindako lanketen analisia eta elkarrizketa sakonak.

Erabilitako metodologian murgildu aurretik, ikerketa aurrera eramateko aukeratutako lagina azalduko dut. Marko teorikoan azaldu dudana bezala, zapalkuntza-ardatz asko daude, baina ikerketa burutzeko nire ustez zapalkuntza nagusienak direnak hartu ditut: Genero zapalkuntza, arraza zapalkuntza eta klase zapalkuntza. Horrez gain, nabarmendu beharra dago aukeratutako gizarte mugimenduek gazte dinamikekin harremana eduki behar dutela, gazte mugimenduak ez direnean.

Genero zapalkuntza aztertzeko Euskal Herriko Neska Gazteen elkarteak hautatu ditut, generoaren arloa garatzeaz gain neska gazteen problematika ere lantzen dutelako.

Arrazaren kasuan SOS Arrazakeria Bizkaia elkarteako kide gazte bat elkarrizketatuko dut, arrazakeriaren gaia jorratzeaz gain pertsona gazteek egunerokotasunean edukitzen dituzten arazoekin ere lanean ibiltzen dira.

Klase problematikarekin arazo gehiago eduki ditut, sindikatu gehienek ez baitute haien gazte sail propioa, beste elkarte batzuekin gazte problematiken lanketan elkarlanean aritzen baitira. Hau kontuan hartuta, ELA sindikatuaren barruan gazte ekimenetaz arduratzen den pertsona baten profila lortu dut, horrela klase ikuspegi bat edukitzeaz gain gazte begirada bermatuta dago.

1.Taula: Landa lana

Zapalkuntza -ardatza	Generoa	Adina	Erakunde mota	Erakundea
Generoa E1	Emakumeak	<25 urte	Bilgune, talde, erakunde, mugimendu feminista...	Euskal Herriko Neska Gazteak, Matraka
Arraza E2	Emakumeak	<25 urte	Mugimendu antiarrazista	SOS Arrazakeria Bizkaia
Klasea E3	Emakumeak	<25 urte	Sindikatura, koordinatzaileak...	ELA

Iturria: Elaborazio propioa

Metodologiara itzuliz, ikerketa burutzeko egindako lehenengo gauza azterketa bibliografikoa izan da, interseksionalitatearen bilakaera historikoa eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzeko eta gaur egungo egoerataz jabetzeko. Baina, funtsean, azterketa bibliografikoaren helburu nagusia analisisan kontuan hartu beharreko dimentsio eta aldagaiak ikusaraztea izan da, horren bitartez elkarrizketako galderak ateratzeko.

Analisiari dagokionez, bi teknika ezberdin erabili dira analisisia aurrera eramateko, bi teknikak teknika kualitatiboak direlarik (Juaristi, 2003). Lehenengoa eta funtsezkoena elkarrizketa sakonak izan dira, elkarte bakoitzari elkarrizketa sakon bat egin diodalarik. Elkarrizketetan bi esparru nagusi bereizi dira, alde batetik elkarteak esaten duena, hau da, elkartearen diskurtso ofiziala, eta bestetik elkarteak egiten duena. Diferentziazio honi esker diskurtso ofiziala praktikara eramandakoarekin alderatu da, haiek interseksionalitateari buruz esandakoa praktikan betetzen den ala ez ikustea ahalbidetu duelarik.

Bestalde, erabilitako bigarren teknika kualitatiboa hautatutako elkarteek egindako lanketan, adierazpenen eta komunikatuen analisisa izan da. Analisi honen bitartez posible izan da elkarteek gai konkretuen inguruan daukaten iritzia zein den jakitea -Martxoak 8aren



inguruan, adibidez- eta niri kontatutakoaren eta komunikatuetan esandakoaren artean koherentzia bat mantentzen den ala ez ikustea. Horrez gain, gizarte mugimenduek haien adierazpenetan planteatutakoak ikuspegi interseksionala daukan aztertzeko balio izan du, beti kontuan hartuta ikuspegi interseksionala edukitzea ez dela ikuspegi zurrun bat, interpretazio eta begirada desberdinak izan lituzkeelako.

Analisia egiterako orduan, elkarrizketei erreferentzia egitean E1, E2 eta E3 bezala identifikatuko ditut, E1 Matrakako elkarrizketatua delarik, E2a ELA-koa eta E3a, berriz, SOS Arrazakeriakoa.

#### 4. ANALISIA

Analisiarekin hasi aurretik, nabarmendu beharra dago, ikerketan zehar esan den bezala, interseksionalitatea ulertzeko era ezberdin asko daudela, eta nahiz eta ikuspegi orokor baten inguruan adostasun asko dagoen indibiduo eta kolektibo bakoitzak bere ñabardurak dituela, ñabardura horiek guztiz errespetagarriak direlarik. Analisi honen helburua ez da gizarte mugimendu batek interseksionalitatearekiko egiten duen irakurketa epaitzea, analizatzea eta alderatzea baizik.

Bestalde, ikerketa kualitatiboa den heinean, lortutako emaitzak heterogeneoak dira, heterogeneotasunak eskaintzen duen aberastasunetik ondorioak aterako ditudalarik.

Metodologiako atalean aipatu bezala, analisiak bi zati nagusi edukiko ditu; Alde batetik analisi narratiboa-teorikoa dago, non hautatutako gizarte mugimenduen adierazpen eta lanketak aztertuko diren, bertatik erakundearen ildo ideologikoa ateratzeko asmoz. Aipatu beharra dago adierazpen gehienak egun konkretuetan egiten direla (Martxoak 8, Maiatzak 1...), eta orokorrean horrelako adierazpenez baliatuko naiz. Kasu askotan, adierazpen horiek ez dute zuzenki interseksionalitateari buruz hitz egiten, baina bere muinean mezuek ikuspegi interseksional bat defendatzen dute, nik ikuspegi hori landuko dudalarik.

#### 4.1 Matraka

##### 4.1.1 Arlo teorikoa

Genero ardatzarekin hasiz, Euskal Herriko Neska Gazteen taldea dago, Eibarko Matraka taldea bere barnean dagoelarik. Haien webgunean jartzen duen bezala, “*EHko neska\* gazteak... Euskal Herriko neska\*gazte talde ezberdinen sarea dugu.*”, hau da, herri ezberdinetako neska gazteen elkartearen batuketaren ondorioa da EHNG, 2016tik hona elkarte egituratzen eta zabaltzen joan delarik. Matrakak 2020an hasi zuen bere ibilbidea, eta beste hainbat talde bezala EHNG-ren dinamikara batu zen. Webgunearekin amaituz, aurkezpen orrian lehendabiziko adierazpena dago, ondorengo dioena:

*“Sistema heteropatriakal kapitalista honen baitan, hamaika zapalkuntzak zeharkatzen gaituzte eta sistemak sakabanatuak, zatituak, isolatuak, nahi gaituen arren, badakigu zeinen garrantzitsua den gure esparru propioak sortzea, sareak ehuntzen joatea, elkarrekin konspiratzea, autodefentsa feministaz borboka dagoen salda egunero eragin, moldatu eta elikagai berriak gehitzea... Badakigu zein garrantzitsua den prozesua, bidea. Aipatu berri ditugun egistasmoek, orain arteko bidea marraztu dute. Jarrai dezagun baina, neska\* gazteon bidea egiten zein beste bide batzuk arakutzen. Bidean egingo gara, bideak egingo gaitu!”*

EHNG. Nortzuk Gara <https://www.ehkoneskagazteak.eus/nortzuk-gara>

Lehenengo aldarrikapen hau oso interesgarria da ikuspuntu interseksional batetik ikusiz, ikerketan zehar aipatutako hainbat esparru jorratzen baitira. Hasteko, *“haimaka zapalkuntzak zeharkatzen gaituzte”*-ren ideiak bat egiten du arestian garatutako guztiarekin, hainbat zapalkuntza daudela esaten denean sistemak jendearekiko -eta kasu honetan neska gazteekiko- praktika zapaltzaileak erreproduzitzen dituztenaren ideia dagoelako, zapalkuntza horiek erditik zeharkatzen gaituztelarik, pribilegioaren edota zapalduaren aldean kokatzen gaituztelarik, zapaltzaile-zapaldu dikotomia erreproduzitzen. Ideia honek bat egiten du sistemak borroka ezberdinak sakabanatuak nahi dituenaren baieztapenarekin; Sistema sortzen eta erreproduzitzen dituen zapalkuntzen jabe da, zapalkuntza horiek sistemarentzat onuragarriak direlarik, eta sistemak badaki zapalkuntza horiei banan-banan aurre eginez eta borrokatuz ia ezinezkoa dela zerbait aldatzea, hau da, sistemaren interesen aurrean alternatiba bat eraikitzea, eta horregatik sistemarentzat erraza da borroka isolatuak bereganatzea, funtsean ez baitzaio -ia- ezer gertatuko. Horregatik azpimarratzen du EHNG-k sistemak borroka sakabanatuta nahi dituela, borroken isolamenduak sistemari mesede egiten diolako.

Borroken sakabanaketaren aurrean, *“esparru propioak saretzea”* defendatzen dute, esparru propioak sortuz soilik lortu daitekeelako sakabanaketari aurre egitea eta alternatiba sendoak eraikitzea. Ideia honek bat egiten du EHNG-k martxoak 8an egin zuen irakurketarekin, bertan zaintzaren garrantzia azpimarratu baitzuten. Zaintza komunitario bat garatzeko beharrezkoa da aipatutako esparru propioak edukitzea, horiek eduki ezean zaintza oso mugatua izango baitzen.

Zaintzari buruz hitz egiten dutenean, zaintzearen ideia elkar zaintzetik haratago doan ideia bat da, sistemarekiko alternatiba integral bat dela defendatzen dute. Kapitalak ahalik eta etekin gehiago atera nahi duen eta harremanen likidotasuna begi-bistakoa den aro honetan, dena azkarregi doanean eta pertsonak merkantilizatzen direnean zaintza erdigunean jartzea iraultzailea dela diote, sistemari aurre egiten zaiolako eta alternatibak eraikitzea posible bilakatzen delako.

Zaintzaren garrantzia sistemako zentro-periferia dikotomiarekin ere lantzen dute, non sistemako erdigunean *“kapitalak ahalik eta etekin handiena ateratzeko beharrezkoak dituen jarduera gutiak kokatzen diren”*, hau da, sistemaren muinean ikuspegi ekonomikotik produktiboak diren jarduerak daude soilik, bertatik etekin ekonomikoak atera daitezkeen jarduerak, beste jarduera denak periferian kokatzen direlarik, hala nola zaintza lanak eta lan

erreproduktiboak; *“Bizitza sostengatzeko ezinbestekoak diren lanak”* periferian kokatzen direla diote, orokorrean etekin ekonomikoak ematen ez dituztenez bigarren maila batean zokoratuta gelditzen direlarik. Honekin batera lan erreproduktibo horiek periferian egoteak pertsona guztien zaintza ez bermatzea eragiten du, zaintza edukitzea norberaren egoera sozioekonomikoaren menpe gelditzen delarik, pertsona askok zaintza duin bat eduki ezin dutelarik, ez zaintza fisikoan ezta psikiko edo komunitarioan. Arrazoi hauengatik gaur egun daukagun sistema sistema biozida dela defendatzen dute, *“gehiengoaren bizitzen kontra egiten duelako modu zuzenean”*. Kontra egite hori kasu askotan ez da era zuzen batean ematen, hau da, ez dute zuzenki zaintza duin bat edukitzea galarazten, baina zentro-periferia banaketarekin zaintza lanak eta lan erreproduktiboak bigarren maila batean gelditzen dira, jende askok horiek lortzeko baliabideak ez dituztelarik.

Bestalde, lan erreproduktiboen kasuan, egoera prekarioan dauden emakumeak dira hauetaz arduratzen direnak, kasu askotan emakume etorkinek paper hori betetzen dutelarik. Horregatik, lan erreproduktiboek, bere barnean genero gatazkatik haratago klase talka bat ere dagoela salatzen dute, lan hauek beti langile klaseko emakumeek betetzen dituztelarik, gehienetan egoera prekario batean. Horrez gain, egoera hau ikusarazteko, zaintza zer ez den erakusten duten pankartak egin zituzten, honela ziotelarik: *“Zaintza ez da zure seme-alabak zaintzeko neska gazte bat egoera prekarioan kontratatzea”, “Zaintza ez da zaintza lanak pribatizatzea”, “Zaintza ez da soldata minimora ez heltzea, kontraturik gabe lan egitea, ordutegi finkorik ez izatea...”* Honi aurre egiteko sistemak bultzatzen duen jarrera neoliberal eta indibidualista alde batera utzi behar dela diote, zaintza kolektibo eta elkar zaintzari garrantzia emanez, kolektiboaren indarra zentroan jarriz.

Zaintza zer ez den ikusita, nola ulertzen du zaintza EHNG-k?

*“Zaintza langileen lan eskubideak errespetatu eta bermatzea da, baita etxeko lanen arduraren zure gain hartzea, edota zure harremanak balioan jartzea. Zure inguruaz eta komunitateaz arduratzea eta inplikatzeko da zaintza, zure harremanekiko erantzukizun afektiboa izatea, bileretan eta ekintzetan bestek ere parte hartzeko espazio seguruak sortzea da eta batzuetan isiltzen jakitea ere bai. Zaintza guztiontzako bizitza bizigarriak bermatzea da”*

Arestian aipatu bezala, zaintzaren ideia zaintzetik haratago doan zerbait da, gure egunerokotasunean ditugun harreman guztien eraldaketa bat ematea defendatzen dute, ingurukoekin, komunitateko jendearekin, lagunekin, familiarekin ditugun harremanak beste era batean planteatzeko eta momentu oro harremanen erdian erantzunkizun afektiboa izateko. Erantzunkizun afektiboaz hitz egiten dugunean, aipatutako norberaren inguruan daudenekiko erantzunkizun bat edukitzea da, ez soilik pertsona hori txarto dagoenean.

Intersekzionalitatearen baitan zaintzaren ideiak garrantzi handia dauka. Mugimendu, elkarte, talde batean ikuspegi intersekzionala aplikatzerako orduan ezinbestekoa da barneko kideen artean etengabeko zaintza bat izatea, behar-beharrezkoa baita kideak gustura eta seguru sentitzea, zerbait gertatzen bazaie laguntza edukiko dutela jakitea. Zaintzarekin soilik sortu daitezke esparru seguruak, esparru seguruak direlarik bide intersekzionala hartzeko lehenengo pausua.

Askotan zaintzaren ideia pertsona batek egoera zaurgarri batean dagoen beste pertsona baten zaintzarekin lotzen dugu, beste pertsona hori egunerokotasuneko gauzak egiteko gai ez denean zentratzen garenean, gaixorik egonda edo oso gaztea edo nagusia den pertsona baten kasuan. Argi dago kasu horretan ere zaintza ezinbestekoa dela, baina EHNG-k haratago joatearen proposamena zabaltzen du, egoera zaurgarrian dauden pertsonak zaintzeaz gain norberaren inguruko pertsonen zaintza aktiboa egitea aldarrikatzen dute, *“guztiontzako bizitza bizigarriak bermatzea”* defendatuz, jende -ia- guztia eroso sentituko den espazioak sortuz. Esaldi honek bat egiten du hasieran aipatutako *“esparru propioak saretu”*-aren ideiarekin, zaintza komunitarioaren garapenerako ezinbestekoa baita erantzunkizun afektiboan oinarritutako sareak sortu eta bermatzea.

Analisi teorikoan aztertutakoa ikusirik, Matrakak eta EHNG-k haien militantzia lana ikuspegi interseksional batetik egiten dutela baieztatu daiteke; Nahiz eta elkarte feminista bat izan generoaren problematikatik haratago doan analisi bat egiten dute, zaintzaren eta klase zapalkuntzaren afera aipatuz eta genero zapalkuntza ikuspegi interseksional batetik ikertuz.

#### 4.1.2 Arlo diskurtsiboa

Orain arlo teorikoan defendatzen dena arlo diskurtsiboan esaten denarekin bat egiten duen aztertuko dut, Matrakako kide bati egin nion elkarrizketa erabiliz.

Hasieran aipatu da EHNG-k *hamaika zapalkuntzez* hitz egiten duela, hau da, generoaz haratago dauden zapalkuntzek ere zeharkatzen dituztela. Ideia honek bat egiten du Matrakako kideak esandakoarekin:

*“Neska gazte talde moduan emakume bezala jasaten dugun zapalkuntzan oinarritzen gara, bai neska bai gazte zapalkuntzan, baina kontuan hartzen ditugu ere zapalkuntzen interseksioan dauden zapalkuntza ezberdinak, arraza eta langile izaeren ondorioz, genero eta orientazio disidenteen ondorioz jasa zenitzakeen zapalkuntzak ere kontuan hartzen ditugu.”* (E1)

Begi bistakoa da genero zapalkuntza ardatz hartzen dutela, baina *“zapalkuntzen interseksioan dauden zapalkuntza ezberdinak”* kontuan hartzen dituztela esatean *hamaika zapalkuntzen* ideia partekatzen du, beraz kasu honetan arlo teorikoa eta arlo diskurtsiboa bide beretik doaz.

Honen harira, zapalkuntza bat baino gehiagoren lanketa aldi berean egitea posible den galdetu nion, eta erantzundakoak berdintasun asko ditu arlo teorikoan aipatutakoarekin:

*“Bai, azenean ni neska naiz baina ez naiz neska bakarrik, langile prekarioa, gaztea, bollera, bi, trans eta pertsona arrazializatu bat naiz, ez naiz izaera bakarra, ez naiz neska bakarrik. Ez da garrantzitsua bi lanketak aldi berean egitea, baizik eta ezinbestekoa.”* (E1)

Arlo teorikoan zapalkuntzek erditik zeharkatzen gaituztela esan da, eta erantzun honen muinean ideia berbera dago; Egunerokotasunean erreproduzitzen diren zapalkuntzek zeharkatu egiten gaituzte, eta zeharkatzen gaituzten heinena pribilegioaren edota zapalkuntzaren aldean kokatzen gara. Neska izateaz gain langile prekarioa, gaztea, bollera, bi, trans eta pertsona arrazializatu bat dela esaten duenean argi gelditzen da zapalkuntzaren ardatzak guztiok zeharkatzen gaituela, eta horregatik esaten du *“ez naiz izaera bakarra, ez naiz neska bakarrik”*, askotan neska-mutil dikotomian soilik gelditzen baikara banaketa egitean, baina zapalkuntza ugari dauden heinean ez dauka zentzurik banaketa binario horretan gelditzea, neska-mutil izateaz gain askoz ere gauza gehiago garelako. Ideia honek bat egiten du marko teorikoan Butler-ek proposatzen duen eskualde eta diskurtsoaren arabera eraldatutako identitateen ideiarekin, azkenean emakume izate hori inguruko beste aldagai askok moldatzen dutelako, aldagai horiek generoarengan daukaten eragina kontuan hartu behar delarik.

Zaintzaren arloa jorratu denean, gazteek jasaten duten egoera prekarioaz hitz egin da, EHNG-k zaintza lan tradizioaletan gazteak eta emakume etorkinek paper hori betetzen dutelarik, *“Zaintza ez da zure seme-alabak zaintzeko neska gazte bat egoera prekarioan kontratatzea”* bezalako ideiekin. Gazteek jasaten duten zapalkuntzen eta nagusiek jasaten dituztenen artean alderik dagoen galdetu nion:

*“Azkenean gazte izateagatik arrazoi eta jakintzak kentzen dizkigute, sistema heteropatriarkalak bere sinismen eta balioak guri (gazteei) inposatu nahi dizkigu gero guk hori birproduzitu ahal izateko. Gazteak garen heinean zaurgarritasun egoera batean gaude non sistemak bereganatu nahi gaituen.”* (E1)

Arestian praktika zapaltzaileen erreprodukzioa aipatu da, elkarrizketatuak esaten duen bezala erreprodukzio hori bermatzeko ezinbestekoa delarik gazteen egoera zaurgarriaz aprobetxatzea ondoren praktika zapaltzaile horiek erreproduzitzeko. Gazteak diren heinean pairatzen duten zapalkuntza ez da pertsona nagusiek jasaten dituztenen guztiz antzekoa, alde batetik arlo ekonomikoan oso egoera prekarioan egoteak aipatutako lan prekarioak hartzea bestetik ez baitzaie gelditzen, eta hori gutxi ez sistemak zapalkuntza egoera hori betikotzeko sinismen eta balioen inposaketa bat ematen dela argudiatzen du ondoren gazteek erreproduzitu ahal izateko. Azkenengo datuen arabera 26 urtetik beherakoen %82ak soldata minimoa baino gutxiago kobratzen du bere lana egiteagatik, datu honek elkarrizketatuak daukan ikuspegiarekin bat egiten duelarik.<sup>1</sup>

Matraka bezalako talde feministen kasuan, askotan bertan parte hartzen duen jende guztia gustura sentitzeaz hitz egiten da, eta egoera honen aurrean ere autokritika egiten dute:

*“Beti dilema horretan aritzen gara, azkenean gure taldean ikusten dugulako neska eta gazte garen heinean talde nahiko normatiboa garela ikusten dugu, genero identitatearen barruan, arrazializaioan... oraindik lanketa nahikoa daukagula ikusten dugu. Horretan ari gara, ekilibrio hori topatu nahian.”* (E1)

1

<https://www.businessinsider.es/juventud-precaria-cada-vez-menores-26-anos-cobran-debajo-salario-minimo-1067713>

Interseksionalitatearen ideiarene baitan kokatzen den elkarte bat izanik, gizartearen dauden sentsibilitate eta egoera ezberdinak kontuan hartzea behar-beharrezkoa da, eta Matrakaren kasuan heterogeneotasun gabezi bat identifikatu dute. Argi dago heterogeneotasun hori ezin dela zuzenki bilatu, baina arazo hori existitzen dela onartzea lehenengo pausua da sentsibilitate ezberdinetako jendea elkartera hurbiltzeko eta interseksionalitateak tratatzen dituen zapalkuntza ezberdinen lanketa hobetzeko bat egiteko, egoera eta sentsibilitate ezberdinak ezagutzeko.

Interseksionalitatearen gaian zehazki sartuta, ideia hau nola lantzen duten galdetu nion, berak zer iritzi zuen jakiteko eta bere ustez elkartean daukan pisuaz hitz egiteko:

*“Nahiko landu dugun ideia bat da, Matraka barruan lantzen saiatzen garena, oso garrantzitsua eta ezinbestekoa ikusten dugulako ulertzea zapalkuntza ez dela bakarrik emakumea izateagatik edo langile izateagatik edukiko, azkenean sistemak era ezberdin askota zapalduko gaituelako, eta hori lantzea garrantzitsua dela uste dugu. Eta horrez gain ikusteko ere gu neska izanda zapaltzaileak ere izan gaitezkeela, pertsona arrazializatu baten aurrean, pertsona trans baten aurrean...” (E1)*

“Sistemak era ezberdin askotan zapalduko gaituelako”; Askotan, zapalkuntza ezberdinez hitz egiten ari garenean, zapalkuntzak modu isolatu batean tratatzeko joera dugu, bata bestearekin zerikusi gutxi izango balute bezala, baina elkarrizketatuak esaten duen bezala, sistemak era ezberdinetan zapaldu gaitzake, eta horregatik ezinbestekoa da pairatzen ditugun zapalkuntzak ez direla emakume izateagatik, langile izateagatik edota pertsona arrazializatu bat izateagatik era isolatu batean ematen, baizik eta interkonektatuta dauden zapalkuntzak direla. EHNG-k hamaika zapalkuntzez hitz egiten du, eta ideia honek bat egiten du elkarrizketatuak transmititutakoarekin. Bestalde, garrantzitsua da norbera konturatzea zapaldua izateaz gain zapaltzaileak ere izan gaitezkeela, eta zapalduak izateak ez digu zapaltzaile izateko eskubiderik ematen.

Marko teorikoan feminismo berriez eta hauek dauzkaten proposamen berriez aritu naiz, Mercedes Jabardo bezalako autoreak landuz, autore hauek hegemonikoa (zuria, mendebaldekoa) ez den feminismo baten alde egiten dutelarik. Matrakaren kasuan bide berbera jorratzen saiatzen dira, hegemonikoak ez diren proposamen alternatiboekin lan eginez eta sistematik alternatibak bilatzen. Etorkizunera begira, elkarte bera elkarte interseksional bat izateko bidean dagoela ondorioztatu daiteke; arlo teorikoa arlo diskurtsiboarekin alderatuz, bi arloak ildo berberetik doazela baieztatu daiteke, nahiz eta teoria praktikara eramaterako orduan kontraesan eta zailtasun ezberdinak eduki.

## 4.2 ELA

### 4.2.1 Arlo teorikoa

Generoaren eta Matrakaren kasua aztertuta, klasea zapalkuntza aztertzen hasiko naiz, eta horretarako ELA sindikatuan gazte ekimenez arduratzen den pertsona bati egindako elkarrizketa erabiliko dut arlo diskurtsiboa aztertzeko, arlo teorikoaren kasuan ELAko aldizkaria den *Landeia*-ren argitalpenez baliatuko naizelarik.

Hasteko ELA sindikatua kokatzea ezinbestekoa da; Eusko Langileen Alkartasuna 1911an EAJren sindikatu bezala sortu zen, baina gaur egun joera horretatik urrun dagoen sindikatu bat da. Haien webgunean dioten bezala, Euskal Herriko sindikatu handiena da, 100.000 afiliatutik gora dituztelarik.

Azpimarratu beharra dago ELA, sindikatua den heinean, ez dela gizarte mugimendu bat, baina, ikusiko den bezala, gazte problematika jorratzen duenez eta gazte mugimenduen barnean kokatzen denez ikerketarako baliogarria den ikuspuntu bat ematen du.

2021eko azaroaren 24 eta 25ean sindikatuaren XV. Kongresua egin zen, bertan Mitxel Lakuntza idazkari nagusi gisa berrautatua izan zelarik. Lakuntzak emandako diskurtsoaren parte bat aztertuz hasiko naiz arlo teorikoaren azterketa hau:

*“Kapitalismoak eragiten duen indibidualismoaren aurrean, teknologia berriek eragiten duten isolamenduaren eta inposatu nahi diguten mundu birtualaren aurrean, pertsonen arteko despolitizazioaren eta deskonexioaren aurrean, sindikatuak badu zer eskaini: isolamenduaren aurka bat egitea, mundu birtual horren aurrean benetako emozioak partekatzea, etsipenaren aurka borrokatzea eta amets egitea. Horretarako daukagu sindikatua, amets horiek egia bihurtzeko. ELAn oinak lurrean ditugun ameslariak gara”.*

ELA, Kongresua (2021eko azaroak 24) <https://www.ela.eus/eu/kongresua/>

Sindikatuaren arabera klase zapalkuntza lantzen duen sindikatu bat da, eta klase zapalkuntza lantzen duen heinean kapitalismoaren kritika begi bistakoa da, sistema horrek sortzen dituen zapalkuntza ugariari aurre egiteko asmoa duen sindikatua baita. Idazkari nagusiak kapitalismoak hainbat eragin dituela azpimarratzen du; Indibidualismoaren kasua askotan aipatzen den ondorio bat da, azken finean ideia neoliberala aurrera eramateko ezinbestekoa baita indibidualismo basati bat edukitzea, baina oso gutxitan hitz egiten da isolamenduz; *Hertzainak* taldeak, *Aitormena* abestian “rutinaren morroiak bihurtu gara” kantatzen zuten, eta errutinaren morroi bihurtzearen atzean Mitxelek aipatzen duen isolamendua dago, errutinak, kasu gehienetan, etxetik lanera eta lanetik etxerako bidea soilik baimentzen du, beste pertsonetikiko, gizartearekiko isolamendu bat edukiz eta sistemarentzat ezinbestekoa den indibidualismoa bultzatuz. Isolamendu hori areagotzeko teknologia berriez hitz egiten da, eta egia da eskuragarri ditugun teknologiek errealitatetik aldentzen gaituztela, kasu askotan mundu birtuala mundu errealarekin nahasten dutelarik.

Diagnostiko honen aurrean, sindikatuak proposatzen duena errealitatera itzultzea da, emozioak partekatzea, etsipenaren aurka borrokatzea eta amets egitea. Klase zapalkuntzaren lehen hurbilpen hau, arestian aipatu bezala *Landeia* aldizkaria erabiliz klase zapalkuntza lantzeaz gain ELA sindikatuak genero eta arraza zapalkuntza nola lantzen dituen aztertuko

dut. Hasteko, aurtengo maiatzaren 1ean eginiko manifestazioan irakurritako manifestuaren parte bat hartu dut:

*“541.600 langile prekario baino gehiago daude Hego Euskal Herrian: behin-behineko kontratuak kateatzen dituen osasungintzako langilea; autonomo faltsu gisa jarduten duen garraiolaria; urtean 18.000 euro baino gutxiago irabazten duen erresidentziako zaintzailea; praktika kontratua duela lanean dabilen ikerlaria... Eta prekaritateak bereziki kaltetzen ditu sektore feminizatuenak: zenbatu ahal izan ditugun hamar enplegu prekarioetatik sei emakume langileenak dira. Hau da, 311.000 emakume daude, gutxienez, prekario Hego Euskal Herrian; ezegonkor, lan jardun erdiekin maiz, doi-doi hilabeteari eusten”*

Gaur egungo egoera sozioekonomikoaren analisisa egiten denean, 2020an sortutako pandemia ezin da albo batera utzi, pandemiak utzi zizkigun sekuelak kasu askotan fisikoak eta psikikoak ez ezik, sozioekonomikoak ere izan ziren, eta ELAren kasuan presente dagoen aldagai bat da. Osasungintzako langileez eta erresidentzietako zaintzaileez hitz egiten denean begi bistakoa da pandemiak lehen lerroan jarri dituen langileak direla, lehen garrantzi askorik ematen ez zitzaien kolektiboak zirelarik. Langile hauek daukaten egoera prekarioa beste lan askotara zabaltzen da, ELAren datuen arabera 540.000 langiletik gora egoera prekarioan baitaude Hego Euskal Herrian. Klase zapalkuntzaren azterketa egiten denean, askotan klase zapalkuntzara mugatzen diren analisiak egiten dira, beste zapalkuntza mota batzuk kontuan hartu gabe; ELAren kasuan sektore feminizatuen aipamena egiten da atal honetan, nabarmentzekoa baita egoera prekarioan dagoen jendearen gehiengoa emakumeak direla, eta egoera prekarioan dauden pertsonen artean ere genero arrakala dagoela.

Elkarte, mugimendu, sindikatu...batak genero zapalkuntzaren afera lantzen duenean, gizartean ematen diren genero zapalkuntzen diagnostiko bat egin ohi du, ondoren egoera hobetzeko alternatibak proposatuz. Beti aberasgarria da gizartean dauden dinamiken subertsio bat bilatzea, baina hori ezinezkoa da elkarte, mugimendu edota sindikatu barruan ematen diren dinamiketan genero zapalkuntza hori, zuzenki edo zeharka, ematen bada. 2022. urtean ELAk *Genero-ekitaterako antolakuntza aldaketarako plan estrategikoa* jarri du martxan, sindikatu feminista bat bilakatzeko helburuarekin. Ondorengo gogoeta egiten dute sindikatutik:

*“Sindikatuak berak sortzen ditu desberdintasun eta diskriminazio egoerak, askotan kontzienteki baina era inkontzientean neurri handi batean.”*

ELA, Generoa (2022ko maiatzak 5)

<https://www.ela.eus/eu/genero-politika/albisteak/elak-sindikatu-feminista-izateko-zutabe-izan-nahi-duen-genero-plan-estrategikoa-aurkeztu-du>

Genero zapalkuntzaz hitz egiten dugunean, zapalkuntza mota ezberdin askoz ari gara, lan eremuko diskriminazioak barnean kokatzen direlarik. Sindikatutik dioten bezala, diskriminazio kasu gehienak era inkontziente batean ematen dira, barneratuta ditugun praktika ezberdinen erreproduzioaren bitartez diskriminazio egoera horiek betikitzen baititugu, eta era inkontziente batean egiten direnak dira aldatzeko zailenak direnak. Era



kontziente batean egiten direnean zuzeneko akzioak egitea errazagoa da, baina inkontzientean barneratuta daudenean aldatzea zailagoa da, eta hori aldatzeko asmoa daukate plan honekin. Honen harira, aurreko atalean aldi berean zapaldua eta zapaltzailea izan zaitezkeela aipatu da, eta ELAk ildo berberetik jarraitzen du, zapaldu edo zapaltzaile bihurtzen gaituen ardatzak aldagai asko baititu, egoera batean zapalduak izan gaitzkeelarik, beste batean zapaltzaileak garen bitartean.

Azkenik, arraza zapalkuntzari ere atal bat eskaintzen zaio *Landeian*, pertsona migratzaileek pairatzen dituzten zapalkuntza ezberdinen lanketa egiten delarik. Ondorengo pasarteak erreskatatu ditut ELAn militatzen duten pertsona migratzaile ezberdinei eginiko elkarrizketetatik:

*“Sektore prekarioenak dira pertsona migratu portzentaje handienak dituztenak, eta batez ere hor egoera irregularrean dauden emakumeak kokatzen dira”*

*“Europar gertatzen dena ikusi besterik ez dago, eta etorkin ezberdinei ematen zaien tratua: ile-horia eta zuria bazara tratua bat ematen zaizu, beltza bazara, beste bat”*

Pribilejio-zapalkuntza eskala bat izango bagenu, eskalaren goi aldean gizon europar zuri bat egongo litzateke, behe aldean emakume etorkin arrazializatu bat egongo zen bitartean. Hori aipatzen du lehenengo militanteak, egoera irregularrean lan prekarioan dauden pertsonen gehiengoa emakumeak dira, gehien bat zaintza lanetan zentratzen direnak. Bigarren militanteak ere antzeko irudi bat dauka hemengo lan merkatuarekiko, pertsonak jasotzen duten tratua arrazarengatik baldintzatuta dagoela dio, pertsona horrek dituen gaitasunak kontuan hartu gabe.

ELAk arlo bakoitzean egin duen lanketa ikusita, sindikatuaren ildo politikoa interseksionalitatearen ideiarekin baitan kokatzen dela esan daiteke. Klase zapalkuntzak sortzen dituen desberdintasun eta diskriminazio egoeren gainean lan egiten da, egoera horiek aldatzeko asmoz, baina aldi berean beste zapalkuntza motak presente daude egoeraren diagnostiko bat egiterako orduan eta konponbide bat bilatzerako orduan.

#### 4.2.2 Arlo diskurtsiboa

Arlo diskurtsiboan sartuz, hasteko elkarrizketa egin nion militante honi zapalkuntza ardatz nagusi bat identifikatzen duten galdetu nion:

*“Azkenean klase borrokaren ideiarekin bat egiten dugu, baina kontua da, adibidez, erresidentzietako pertsona migratu batek, emakume migratu batek nik ez ditudan beste zapalkuntza batzuk izango dituela, edo pertsona homosexualen kasuan ere berdin. Azkenean, bai, obbiamente langile klasea defendatzen dugu baina ulertzen dugu ere beste zapalkuntza batzuk daudela eta horren bozeramaile izan behar garela.” (E2)*

Klase zapalkuntza lantzen duen sindikatu bat den heinean, esaten duen moduan klase borrokaren ideiarekin egiten dute lan, baina egoera bakoitzean analisi konkretu bat egin behar dela defendatzen dute, egoera konkretu bakoitzean erantzun konkretu bat eman behar delako. Hasieratik interseksionalitatea presente dagoela ikusi daiteke, pertsona migratuen eta emakumeen egoerez mintzatzen baita, hauek pairatzen dituzten zapalkuntzak desberdinak izango direlako beste pertsona batzuek jasotzen dituztenarekin alderatuta, hau kontuan hartzea ezinbestekoa delarik sindikatuak bere lana ondo egin dezan, ezinezkoa baita langile guztiak era berdinean tratatzea. Honen harira, klase zapalkuntza ez diren beste zapalkuntzak kontuan hartzen direnaren inguruan hitz egin genuen:

*“Azkenean zapalkuntzak konektatuta daude, eta langile klasearen baitan ere pribilejioak daude (gizon-emakume, homo-hetero, bertako-kanpoko...), orduan nahi ta ez, langile klasea defendatzen dugun heinean beste zapalkuntzak kontuan hartzen dira.” (E2)*

Generoaren atalean ikusi zen bezala, kasu honetan ere aldi berean zapalduak eta zapaltzaileak izan gaitzkeenaren ideia atera zen. Kasu askotan langile klasearen mitifikazio bat ematen da, baina langile klasearen barruan ere botere harremanak daude, zapaldu eta zapaltzaileak daude eta sistemak eragiten duen klase zapalkuntzaren barnean pribilejio egoerak daude. Bi elkarteek Hill Collins-ek ohartarazi zuenarekin bat egiten dute, elkartearen barnean zapaldu-zapaltzaile harremanak egon daitezkelako, gero harreman horiek gizartera pasatzen direlarik. Horrelako egoerak interseksionalitatea aplikatu nahi duten elkarteetan errazago ematen dira, elkartearen barnean aldi berean zapalduak eta zapaltzaileak diren pertsonak elkarlanean aritzen direlako. Antzeko egoera bat dago gazteek eta nagusiek pairatzen duen klase zapalkuntzaren kasuan, gazteek pairatzen duten zapalkuntza desberdina baita nagusiek jasaten dutenarekin alderatuta:

*“Azkenean gazteek pairatzen duten prekarietatea, interinietatea... oso ezberdinak dira nagusiek pairatzen dituztenekin alderatuta. Enpresa batean aldizkakoak direnak eta txarren daudenak gazteak dira, eta fijoak direnak nagusiak dira. Osakidetza bezalako instituzio publikoetan gazteak lan kontratu laburrak edukitzen dituzte, nagusiak finkoak diren heinean, eta gazteak lan merkatura joaten direnean zailtasunak izaten dituzte.” (E2)*

Gazteek lan merkaturan lana bilatzerako orduan lan duin bat bilatzeko zailtasun handiak dituztela esaten dute, baina honetaz mintzo direnean ez du esan nahi langile klaseko pertsona nagusiagoek erraztasunak dituztenik lana bilatzeko eta lan baldintza duinak izateko, baina begi bistakoa da gazteen gehiengo egoera prekario batean bizi dela, hein handi batean lortzen dituzten lan guztietan baldintza txarrak dituztelako. Kasu askotan adinaren aldagaia ez da kontuan hartzen zapalkuntzen lanketa bat egitean, baina ELAk, elkarrizketatuaren aburuz, desberdintasun horiek kontuan hartzen ditu diagnostiko egoki bat egiteko asmoarekin.

Honaino ikusitakoarekin argi gelditu da ELAk klase zapalkuntzari aurre egiteko plangintzak arlo teorikotik praktikara eramaten dituela, baina zer egiten du genero eta arraza zapalkuntzak lantzeko?

*“Orain prekaritate kanpaina abian daukagu, eta honen harira diagnostiko bat egiten ari da.*

*Horrekin greba asko egin dira soldata arrakalaren harira, adibidez Guggenheimeko garbitzaileek izan duten gatazkan edota etxez etxe ibiltzen direnen kasuan, eta hori salatzeko egin dira. Pertsona arrazializatuen kasuan orain dela gutxi eduki genuen erregularizazioaren aldeko kanpaina, baina ez da guk egin duguna, babes eman diegun mugimenduak dira. Uste dut zaila dela pertsona arrazializatuekin lanean ibiltzea pertsona zuria izanda, baina beharrezkoa da eta egiten saiatzen gara.” (E2)*

Genero zapalkuntzaren kasuan, greben hitzarmen kolektiboak lortzea bilatzen da, existitzen den soldata arrakalarekin amaitzeko. Kasu askotan garbitze eta zaintza lanetan aritzen diren emakumeak izaten dira egoera prekarioenean daudenak, lan horiek lan merkatuan daukaten “ospea” oso urria baita, eta hori gutxi ez tradizionalki esparru feminizatuak izan dira; Bi faktore horiek klase zapalkuntzari gehituta lan oso prekarioak ateratzen dira, eta horrelako esparruetan ezinbestekoa da sindikatuaren lana.

Bestalde, oso interesgarria iruditu zitzaidan pertsona arrazializatuekin lanean ibiltzeko edukitzen dituzten zailtasunen inguruan aipatutakoa. ELA beste eragile eta mugimendu batzuekin elkarlanean aritzen da pertsona arrazializatuek jasaten duten zapalkuntzari aurre egiteko, baina zailtasunak dituzte sindikatu bezala haien ekimenak aurrera eramateko. Horren arrazoiak zeintzuk diren galdetu nion:

*“Depende, egia da pertsona prekarioak zailagoak direla antolatzeko, eta egia da batzuk mesfidatiagoak direla, baina baditugu delegatuak urteekin kriston lana egin dutenak pertsona arrazializatuekin, baina zaila da zeren bakoitza herrialde batekoa da, kultura batekoa, hizkuntza bat erabiltzen du eta bere taldera mugatzen da eta hurbiltzea zailagoa da. Azkenean denbora behar da militatzeko eta gogoak eduki behar dira, eta askok ez dute edo ezin dute hona sartu.” (E2)*

Aipatzen duen bezala, pertsona prekario batek mila gauza edukiko ditu egiteko, egunero arazo ezberdinak izango dituelarik konpontzeko, eta pertsona arrazializatuen kasuan, mendebaldeko herrialde askotan jasaten duten diskriminazioa kontuan hartuta normala da pertsona zuriekiko mesfidatia izatea eta haiek gustura sentitzen diren zirkuluan mantentzea. Elkarrizketatuak dio honi aurre egiteko delegatuen lana ezinbestekoa dela, urteak daramatzatelako pertsona arrazializatuekin lanean eta badakitelako nola tratatu, baina hala ere zailtasunak dituzte pertsona arrazializatueta hartzeko. Arazo bat konpontzeko lehenengo pausua arazoa existitzen dela onartzea da, eta hortik aurrera konponbideak bilatzea, ELA horretan dabilelarik. Honen harira, bere ustez genero eta arraza zapalkuntzak lantzeko nahikoa egiten duten ala ez galdetu nion:

*“Nik uste dut ezetz, saiatzen ari garela uste dut, azken urteetan asko aurreratu da, asko aldatu da sindikatuaren egoera eta diskurtsoa, eta prozesu horretan gaude. Erraza da feministak garela esatea, baina autokritika egin behar da gehiago egin genezakeelako. Prozesuan gaude eta gutxinaka-gutxinaka interseksionalitatearen ideiarra hurbiltzen ari garela uste dut. Bestalde aldaketa generazionala dago sindikatuan eta horrek nahitaez aldaketak dakartza. Orain dela urte pare bat sindikatuko genero azterketa bat egin zen eta diagnostiko bastante lamentable bat*

*atera zen, sektore ultramaskulinizatu bat zela ikusi zelarik, eta horren harira aldaketak eman dira eta ematen ari dira aldatzeko asmoz.” (E2)*

Atal honetan zehar ELAk egiten dituen lanketa ezberdinak ikusi dira, baina elkarriketatuaren ustez oraindik ez dira nahikoa, bere ustez oraindik bidea gelditzen da egiteko. Aipatzen duen aldaketa generazionala interesgarria iruditu zitzaidan; Aldaketa bat ematen denean aldaketa onera edo txarrerara eman daiteke, baina aldaketa hori burutuko duten pertsonak ideiak argi badituzte aldaketa hori onerantz joatea errazagoa izango da, kasu honetan, aipatzen duen bezala, interseksionalitatearen ideia hurbiltzeko eta zapalkuntza ezberdinen lanketa sakon eta eraginkorra egiteko.

Azkenik interseksionalitatearen inguruan zer iritzi duen eta gizarte mugimenduetan aplikatzen den galdetu nion:

*“Interseksionalitateak gizartearen egoeraren diagnostiko egoki bat egitea ahalbidetzen du, langile klasearen baitan zapalkuntza bakarra dagoela uste badugu diagnostiko oso eskasa egiten dugu, baina egia esan oso gutxi dagoen ideia bat da, azkenean militantzia esparruan pertsona perfil antzekoa topatzen duzu, oso pertsona prekario, arrazializatu gutxi... eta gizarte mugimenduetan ez da ikuspegi hori isladatzen. Askotan gizarte mugimenduetan predikatzen diren diskurtsoak ez dira praktikara pasatzen.” (E2)*

Bere ustez interseksionalitateak gizartearen egoeraren diagnostiko egoki bat egiteko balio du, zapalkuntza ezberdinen lanketa egiteko eta konponbideak bilatzeko. Aldi berean autokritika egiten du gizarte mugimenduetan interseksionalitateak daukan garrantzia ikusita, oso perfil homogeneousak ikusten baitira gizarte mugimendu gehienetan, “predikatzen diren diskurtsoak ez dira praktikara pasatzen”. Gizarte mugimendu askok aniztasunaren aldarrikapen irmo bat egiten dute, baina mugimenduaren barnean ez da aniztasun hori ematen, eta barnean ematen ez bada oso zaila da kanpora ideia hori babestea.

Martha Gimenez-ek esaten duena ELAren proposamenekin alderatuz, ELAk AGKren (Arraza-Genero-Klase) defentsa egiten du Gimenezen klase zapalkuntzaren garrantziaren aurrean. ELAk klase zapalkuntzari garrantzi handia ematen dio, baina aldi berean klase zapalkuntzatik at dauden zapalkuntza ezberdinen lanketa egiten du, beraien ustez haien lanerako ezinbestekoa baita klasea ez diren zapalkuntzen lanketa egitea. Generoaren atalean aipatu bezala, arlo teorikoan aipatzen dena praktikara eramaterako orduan zailtasunak edukitzen dira, baina ikusitakoaren arabera ELA zailtasun horiek konpontzen saiatzen da, interseksionalitatean oinarritutako ekimenak aurrera eramaten eta zapalkuntza ezberdinen aurrean irtenbideak bilatzen; plangintza sendo bat dauka etorkizunean sindikatu interseksional bat izateko, eta nahiz eta oraindik ez izan bide horretatik doan sindikatu bat dela esan daiteke.

### 4.3 SOS Arrazakeria

#### 4.3.1 Arlo teorikoa

Azkenik, arraza zapalkuntza aztertzeko SOS Arrazakeria elkarte aztertuko dut. Estatu mailan 80.hamarkadan sortu ziren elkarte antiarrazistak, eta 1992.urtetik aurrera elkarte ezberdinak elkarlanean hasi ziren, estatu mailako elkarte bat sortuz, probintzia bakoitzak bere elkarte propioa zuelarik. 3 helburu nagusi ditu elkarte honek: Diskriminazio kasuetan laguntza legala ematea, sentsibilizazio kanpainak aurrera eramatea eta momentuko egoeraren diagnostikoak egitea. Haien web orrialdean horrela definitzen dute antiarrazismoa:

*“Nagusitasun zuriak eta beltzen, ijitoen, musulmanen, asiaticoen, indigenen... aurkako arrazakeriak markatutako sistema bat desagiteko praktika, nahita egindako ekintzen bidez.”*

SOS Arrazakeria, Quienes Somos (2016ko maiatzak 24)

<https://sosracismo.eu/quienes-somos/>

Sistema desagiteko praktikak aurrera eramatea defenditzen denean, sistema aldatzearen beharra azpimarratzen da, gaur egun bizi garen sistemak sistematikoki diskriminatzen baititu aipatutako kolektibo ezberdinak, haien jatorriagatik eta azal koloreagatik. Argi dago sistema aldaketa aurrera ateratzea zaila dela, baina ematen diren praktika diskriminatzaileekin amaitzeko era bakarra dela defendatzen dute. Diskriminazioaren kasuan ere definizio propioa daukate:

*“Tratu berezi oro bezala ulertzen da, honako arrazoi hauengatik: kolorea, hizkuntza, etnia, erlijioa, nazionalitatea, jatorria, sinesmenak, sexua, generoa, orientazio sexuala edo beste ezaugarri pertsonalak direla eta izango da, betiere justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa ez badu”*

Diskriminazio kasuak oso desberdinak izan daitezke, definizioan dioten bezala. Kontuan hartuta SOS Arrazakeriak diskriminazio kasu ezberdinak pairatu dituzten pertsonen laguntza ematen diela, ikuspegi interseksional bat aplikatzen dute haien jarduna aurrera ateratzerako orduan, arraza diskriminaziotik haratago dauden diskriminazio ezberdinak kontuan hartzen dituztelarik, ondoren laguntza emateko. Honen harira, diskriminazio era asko daude, baina diskriminazio eragatik haratago diskriminazio horiek ematen diren lekuak ere badaude, hau da, diskriminazio batzuk esparru konkretuetan ematen dira; Lan arloan adibidez:

*“Lan-merkatuan dagoen diskriminazioak eragin handia du gizarte-diskriminazioan eta immigrazioak gizartean duen inpaktu motan. Horregatik langile-klaseko kide askok biztanleria etorkina alboratzeko duten kontraesana azal dezakegu, nahiz eta, objektiboki, etorkinak oro har bertakoen lan-baldintza eta bizi-baldintza berberen mende egon. Lehenago aipatu diren aurreiritziek eta orokortzeek eragotzi edo zaildu egiten dute zenbait kolektiboren lana lortzea, irautea eta lan-sustapena”*

Elkarte honen arabera, lan arloan ematen diren diskriminazio egoerak enpresako jabeak pertsonak haien jatorri eta azal koloreagatik epaitzen ditu, barneratuta dituen estereotipoek bere jarduna baldintzatzen dutelarik. Diskriminazio hori erraz identifikatzen da, baina kasu honetan langileen artean ematen diren diskriminazio egoerez hari da; Sistema kapitalistan krisiak ziklikoak dira, egoera ekonomikoa ona denean jendearen gehiengoa “pozik” dagoelarik, baina krisi garaiak heltzen direnean jendeak beti errua norbaiti bota behar zaio, eta kasu askotan errua etorkinei botatzen zaie, nahiz eta haien egoera bertako langile klaseko pertsonen berdina edota txarragoa izan. Honek berriz ere zapaldu-zapaltzaile dikotomiara itzultzen gaitu, enpresa batean lan egiten duen pertsona zuri bat aldi berean enpresak, sistemak zapaldua delarik, etorkinekiko zapaltzailea den bitartean.

Arestian aipatu da SOS Arrazakeria elkartean bere funtzioen artean diskriminazioaren bat jasan duten pertsonen laguntza ematea dela, diskriminazio horietako bat gorroto-delituak direlarik. Ondorengo estrategia daukate gorroto-delituei aurre egiteko:

*“Diskurtsoak eta gorroto-delituak prebenitzeko, funtsezkoa da horrelako adierazpenen oinarrian dauden estereotipoak eta aurreiritziak erasotzea. (...) Diskurtsoa eta gorroto-delituak prebenitzeko modu bat giza eskubideetan oinarritutako narratibak eraikitzea eta zabaltzea da.”*

Aurre egitearen gakoa prebentzioan dagola uste du SOS Arrazakeriak, barneratuta ditugun estereotipo eta aurreiritziei aurre eginez. Erakundeak giza eskubideetan oinarritutako diskurtsoak zabaltzea proposatzen du, giza eskubideak errespetatzearekin gorroto delituen gehiengo batekin amaituko zelarik. Horretarako, aipatutako prebentzio eta sentsibilizazio kanpainak ezinbestekoak dira, arraza zapalkuntzaren kasuan ez ezik, beste zapalkuntzei aurre egiteko.

Bestalde, genero zapalkuntzarekiko ere irakurketa bat dauka SOS Arrazakeriak, zapalkuntzen aurka borrokatzen duten emakumeekiko ondorengo iritzia dutelarik:

*“Hitz egin dezagun sustrai patriarkalak eta arrazistak dituen sare politiko, sozial eta kulturalaren aurka borrokatzen diren emakumez, batzuek gozatzen duten gizarte neoliberalarentzat instrumentalak eta beharrezkoak direnak, eta gehienok sufritzen dugu, eta erantzun ere egiten dugu”*

SOS Arrazakeria, Mujer e Islamofobia (2016ko abenduak 30)

<https://sosracismo.eu/mujer-e-islamofobia/>

Atal honetako alderik azpimarragarriena beharrezkoak direnarena da, hau da, jasaten dituzten zapalkuntza ezberdinek ez dute kentzen sistemarentzat behar-beharrezkoak izatea, nahiz eta sufritu sistemaren barnean lanean jarraitzen dutelarik, askok zapalkuntzei erantzun eta aurre egitea erabaki dutelarik.

Arlo teorikoa aztertuta, SOS Arrazakeriak bere jarduna interseksionalitatean oinarrituta eramaten du aurrera, arrazarengatik pairatzen den zapalkuntzak atzean beste zapalkuntza asko dituela defendatzen dutelarik. Kontuan hartu beharra dago elkarte honek arraza

zapalkuntzatik haratago dauden zapalkuntzekin lan egiten duela, diskriminazio egoeran egon den edozeini laguntza ematen diotelarik, eta printzipio hori nahi eta nahi ez printzipio intersekzional bat da.

#### 4.3.2 Arlo diskurtsiboa

Erakundearen zutabe ideologikoa nola gorpuzten den ikusteko, Bizkaiako SOS Arrazakeriako militante bati eginiko elkarrizketaz baliatuko naiz, haien zapalkuntzaz gain beste zapalkuntzak nola tratatzen dituzten galdetu niolarik:

*“Arrazatik haratago ere lan egiten dugu, etnia, erlijioa, arrazismoa inplikatzan duen guztia. (...) Beste zapalkuntzak ere kontuan hartzen dira, emakume arrazializatu batek jasaten dituen zapalkuntzak gizon batek jasaten dituenak baino askoz gehiago dira, generoa tartean sartzen zaiolako. Hemen diskriminatuta sentitu den edonori ematen diogu arreta.” (E3)*

Teoriaren atalean aipatu den bezala, erakunde honek arraza zapalkuntzaz haratago egiten du lan, etnia, erlijio eta bestelako aldagai ezberdinek osatzen baitute arrazismoa. Horrez gain, elkarrizketatuak beste zapalkuntzak ere kontuan hartzen direla erantzun zuen, arraza aldagaiaz haratago beste zapalkuntzek ere eragina dutelako arraza zapalkuntza aztertzean. Gakoa diskriminatua sentitu den edonori laguntza ematean dagoela dio. Bestalde, zapalkuntzen artean dagoen lotura kritikatzan du:

*“Gure ustez, lotura bat dago, batez ere emakumeen esparruan, batez ere orain joera bat dago hegemonikoa ez den feminismoaz hitz egiten saiatzen dena, arrazaren kontzeptua barne hartzen duen feminismoaz, aspalditik hitz egiten baita egile feminista zuriez, heteropatriarkatuan zentratuz, baina ez dira jorratzen emakume zuriek emakume arrazializatuekiko duten arrazakeriarekin zerikusia duten gaiak.” (E3)*

Zapalkuntzak interkonektatuta daudela argi dago, baina horrek ez du kentzen konexio hori ezartzerako orduan gailendu den ikuspegia mendebaldeko feminismo zuriarena izan dela, horrek dituen nahitaezko mugekin. Elkarrizketatuak azken urteetan tendentzia hori aldatzen joan dela esaten du, feminismo ez hegemonikoaren baitan arraza kontzeptua landu delarik, emakume zuriek emakume arrazializatuak eragiten dien zapalkuntza kontuan hartuz. SOS Arrazakeriak bat egiten du ideia horrekin, haientzat ezinbestekoa baita pertsona arrazializatuak pairatzen duten zapalkuntza kontuan hartzea.

Elkarrizketan gazteek pairatzen dituzten diskriminazioek nagusiek pairatzen zituztenekin aldea zegoen galdetu nion:

*“Ikusten dugu gazteek jasaten dituzten zapalkuntzak eta adinekoek jasaten dituztenak desberdinak direla. Gizon gazteen kasuan, lotura handiagoa du poliziaren arrazakeriarekin,*

*eta adinekoen kasuan gehiago zentratzen da eskubideen gaian, eguneroko diskriminazioan.”*

(E3)

Poliziak eragiten duen jazarpena pandemiatik hona asko areagotu dela dio elkarrizketatuak, jazarpen hori gehien bat gizon gazteek pairatzen dutelarik. Adin berbereko gazteekin alderatuta, pertsona arrazializatuek askoz ere arazo gehiago edukitzen dituzte poliziarekin, kasu gehienetan azal kolore ezberdina izateagatik, eta arlo horretan aritzen da lanean erakundea, pertsona hauei laguntza legala ematen eta justizia bilatzen. Pertsona nagusien kasuan egunerokotasunean eman daitezkeen diskriminazio egoerekin egiten dute lan, erosketak egitera joatean, bankura joatean edota etxea bilatzean sortzen diren jazarpen egoerekin lan egiten dutelarik.

SOS Arrazakeriaren azterketan zehar, sentsibilizazio kanpainak aztertu nituen, eta horren inguruan aritu ginen:

*“Egiten ditugun sentsibilizazio-kanpainetan, saiatzen gara ez bakarrik kolektibo jakin batean zentratzen, baizik eta talde guztiak hartzen saiatzen gara (erlijioa, etnia). Prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiak integratuta senti daitezen saiatzen gara. Ikuspegi horri buruzko begirada guztiak sartzen saiatzen gara; beti ipar global honetatik hitz egiten baitugu arrazakeriari buruz, baina jasaten den arrazakeria horrek pertsona ugari eragiten die, Hego Amerikako, Erdialdeko Amerikako, Asiako edo Afrikako pertsonak izan daitezkeelarik, esaterako; batzuetan Afrika ia herrialde bat balitz bezala interpretatzen da, baina Afrika hizkuntzaz, sinesmenez, erlijioz, etniaz betetako kontinentea da, eta hau kontuan hartuta ahalik eta jende gehien hartzen saiatzen gara egiten ditugun kanpainetan.”* (E3)

Sentsibilizazio kanpaina bat aurrera eramaten denean, kasu askotan kolektibo jakin bati bideratzen zaio, kolektibo hori sentsibilizatzeko asmoz, baina elkarte honen kasuan kolektibo batetik haratago kokatzen dira aurrera eramaten dituzten sentsibilizazio kanpainak, prozesuan parte hartzen duen pertsona oro integratuta sentitu dadin.

Bestalde, ipar-hego global dikotomiaz hitz egiten da, teoria eta sentsibilizazio kanpaina gehienak ipar globaletik egiten direlarik, pairatzen dituzten pertsonen gehiengoa hego globalekoa den bitartean. Ideia hau ez dut asko landu ikerketa osoan zehar, eta egia da ipar globaletik ikertzean pribilejio egoera batetik idazten dudala, horrek dakarrenarekin.

Horrez gain, kasu askotan Hego eta Erdialdeko Amerika, Asia edo Afrika talde homogeen bezala tratatzen ditugula dio elkarrizketatuak, kontinente horiek osatzen dituzten herrialdeetan kultura, hizkuntza, erlijio... berbera izango balute bezala. Leku bakoitzeko egoera oso konkretua da, bakoitzak bere sinesmenak dituelarik, eta hori kontuan hartu behar da sentsibilizazio kanpaina bat aurrera eramatean, sinesmen guztiak kontuan hartzea oso zaila baita.

Azkenik, interseksionalitatearen inguruan zeukan iritzia galdetu nion:

*“Nik uste dut beti hartu behar dela kontuan; esan bezala, desberdina da sistema heteropatriarkalaren zapalkuntza jasaten duen emakumea izatea, baina guretzat ere badago*



*gai arrazista. Guk sistema heteropatriarkal horren aurkako antikapitalismoan, antirrazismoan, oso zentratutako diskurtsoa dugu; gaur egun sistema horretan dauden zapalkuntza guztiak sortzen diren triangelu batean lan egiten dugu. Badakigu klasea, generoa, etnia eta jatorria kontuan hartu behar ditugula, gauza bakoitzak zapalkuntza desberdinak dakartza eta.” (E3)*

Zapalkuntzen triangeluaz mintzo da elkarrizketatua, bere ustez triangelu horiek konektatuta daudelarik. Haien burua antikapitalista eta antiarrazista bezala ikusten duten heinean sistemak sortzen duen zapalkuntza ororen aurrean kokatzen da SOS Arrazakeria, zapalkuntza horiek elkar konektatzen diren interseksioan lanean aritzen direlarik, lan hori ezinezkoa delarik ikuspegi interseksional bat eduki gabe.

SOS Arrazakeriak, *Black Lives Matter* mugimenduak bezala, arraza zapalkuntza eta horrek dituen aldaeren gainean egiten du lan, beti inguruan dauden zapalkuntza ezberdinak kontuan hartuta, ikerketan aipatu bezala, emakume arrazializatu batek jasaten dituen zapalkuntzak ezberdinak izango baitira gizon arrazializatu batek jasaten dituenarekin alderatuta, edota pertsona gazte arrazializatu batek pertsona nagusi arrazializatu batek jasaten dituenarekin alderatuta. SOS Arrazakeriaren plangintzan interseksionalitatearen baitan lan egitea da, egiten dituzten ekintza eta lanketek hori erakusten dutelarik.

Aztertutako esparru ezberdinak kontuan hartuta, SOS Arrazakeriak arraza zapalkuntzaz haratago dauden zapalkuntzen lanketa egiten duela agerikoa da, haien zapalkuntza ardatz nagusia ez diren beste zapalkuntzetan ere lanean aritzen direlarik, aipatutako zapalkuntzen triangeluan lanean arituz.

## 5. ONDORIOAK

Bauman-ek (Bauman, 2000) gaur egungo gizartea gizarte likido bezala definitu zuen, gizartea osatzen duten esparru ezberdinek daukaten ezegonkortasunaren ondorioz ezer gutxi baita ziuerra. Likidotasun iraunkor batean bizitzean norbanakoa isolatu egiten da, gizartea, komunitatea osatzen duten pertsonen urrunduz, helburu kolektiboak albo batera utziz eta borroka pertsonalak besarkatuz, dituen arazoak norberaren errua izango balira bezala. Beste gauza askoren artean, honi aurre egiteko balio du interseksionalitateak, norberak eta kolektibo ezberdinek dituzten borroka partikularrei dimentsio global bat emateko, borrokak partekatzeke eta alternatibak eraikitzeke. Ikerketa hau egiterako orduan autore asko aztertu ditut, bakoitzak interseksionalitatearekiko iritzia propioa zuelarik, irakurketa ezberdinak eginez. Nire ustez hori da interseksionalitatearen alderik onena; bakoitzak bere irakurketa propioa egin dezake, baina aldi berean interseksionalitatearen oinarriak partekatzen dira, borroka ezberdinak bateratuz eta zapaltzen gaituen sistemari aurre eginez.

Analisian arrazaren gaia jorratu nuenean, elkarrizketatuak guk (mendebaldeko jendeak) egiten ditugun ikerketak ipar global batetik egiten ditugula gogorarazi zidan, hau da,

nahitaezko pribilejio egoera batetik ikertzen dugu, eta nahiz eta munduko ikerketa onena izan sekula ez gara hurbilduko zapalkuntza egoera batean dagoen pertsona batek egin lezakeen ikerketa batera. Ikerketa hau egiteko genero, klase, adin eta arraza zapalkuntzak ikertu ditut, klase zapalkuntzan ezik beste bi zapalkuntzak pribilejio egoera batetik ikertu ditut, eta nire ustez horrek mugatu nau. Aldi berean ez dakit zein eratarata tratatu beharko nituzkeen gai hauek, kontuan izanda, kasu gehienetan, pribilejio egoera batetatik idazten ditudala, baina ahal izan dudana hoberen egiten saiatu naiz.

Azpirarragarria iruditu zait hiru elkarrizketatuek zapaldu-zapaltzaile dikotomia aipatu izana; Denek hitz egin dute aldi berean zapalduak eta zapaltzaileak izan gaitezkeela, zapalkuntzek zeharkatzen gaituztelako. Ikerketan zehar zapalkuntza ardatzaren lanketa egin dut, ardatz horrek norbanakoa alde batean edo bestean uzten duelarik, hau da, zapaldu edo zapaltzaile bihurtzen du pertsona bakoitza. Ardatzak mundu guztia zeharkatzen du, baina ez du mundu guztia toki berean uzten; Askotan beti gure buruan zapalduaren tokian jartzeko joera dugu, gu historiako zapalduak izango bagina bezala, eta hein handi batean egia da, planeta honetan bizi den jendearen gehiengoa ezarrita dagoen sistemak zapaltzen baitu, gutxi batzuek dirutzak egiten dituzten bitartean, baina aldi berean zapalduak izateaz gain beste pertsona batzuekiko zapaltzaileak gara, batzuetan era kontziente batean eta beste batzuetan inkontzienteki, sistemak gudan ezartzen duen jazarpena guk aldi berean beste batzuekiko erreproduzitzen dugularik. Sistemaren zapalkuntzari aurre egin behar zaio, baina aldi berean norberak bere buruari begiratu behar dio, autokritika egin eta zapaltzaile bihurtzen garen momentuak identifikatu, ondoren aldatzeko. Intersekzionalitateak autokritika hori egiten laguntzen digu, zapaltzaile izatea uzteko bidea erraztuz.

Horrez gain, adinaren aldagaia hiru elkarrizketetan, modu batean edo bestean presente egon den aldagai bat da. Askotan adinak atzean daukan subjektibotasuna atzean uzten dugu, daukan pisua alboratu egiten dugu, eta objektiboki tratatzen dugu, pertsona bakoitzean daukan eragina gutxietsiz. Elkarrizketetan adinak daukan subjektibotasuna kontuan hartu da, elkarrizketatu bakoitzaren elkarte-sindikatuan adina zapalkuntza gisa tratatzen delarik, gazte izateagatik jasaten dugun zapalkuntza beste zapalkuntzekin alderagarria delako.

Bourdieu-k (Bourdieu, 1979) habitusaren kontzeptua asko garatu zuen, egunerokotasunean erreproduzitzen ditugun praktika ezberdinek norberaren eta kolektiboaren habitusa garatzen dutelarik. Praktika horiek gizarteko esparru ezberdinetatik jasotzen ditugun input-en ondorioak dira, norberak, denboraren poderioz, input horiek erreproduzitzen. Input horien bitartez zapaltzaile bihurtzen gara, egunerokotasunean beste pertsona batzuekiko barneratutako praktika zapaltzaileak erreproduzitzen ditugularik. Honi aurre egiteko ezinbestekoa da intersekzionalitatea, ikuspegi intersekzional batetik soilik lortu daitekeelako praktiken subertsio bat ematea. Subertsio horri aurre egiteko estrategia ezberdin asko daude, analisisan ikusi dugun bezala gizarte mugimendu bakoitzak bere estrategia propioa daukalarik, baina azkenean helburua berdina da, mugimendu denek, muinean, helburu berbera lortzea nahi dutelarik.

Gizarte mugimenduek estrategia ezberdinak izan ditzakete, helburuak lortzeko bidea norberak era ezberdin batean ikusten baitu. Bide horretan, ikerketan zehar ikusi bezala, kontraesanak sortzen dira, kasu askotan zaila izaten baita esaten denaren eta egiten denaren artean koherentzia bat mantentzea, eta normala da ika-mikak edukitzea, askok koherentzia zurrun batean oinarritzen baitute haien militantzia, baina azken helburua lortzeko bide egin beharra dago, bidean zailtasunak egongo direlarik. Bidea egiteko jendea behar da, esparru ezberdineko jendea, bidea errazago egiteko eta ondoren bideko oinarriak sendo egoteko, eta hori soilik ikuspegi intersekzional baten bitartez indarrak batzen egiten da.

Honekin ez dut esan nahi zapalkuntza ardatz bakarria daukaten elkarteek orain arte egin dutenari uko egin behar diotenik eta haien funtzionamendua aldatu behar dutenik; Bakoitza librea da uste duen erara jarduteko eta berarentzat eta elkartearentzat ustez egokiena den pentsaera aurrera eramateko, bakoitzat bere *modus operandi*-a baitauka eta ez naiz ni izango hori aldatzea inposatuko duenik.

Ikerketa hasien aipatutako helburuetara itzuliz, Matrakak, ELAk eta SOS Arrazakeriak intersekzionalitatearekiko dituzten proposamen, plangintza eta asmoak argi ikusi dira, bakoitzak estrategia propioa duelarik, baina beti ere helburu berberarekin. Bestalde, mugimendu bakoitzak daukan zapalkuntza ardatz nagusitik at egiten duten lana ere ikusi dela uste dut, elkarteek beste zapalkuntzei garrantzi handia ematen diotela argi gelditu delarik.

Oso zaila da esaten denaren eta egiten denaren artean koherentzia oso bat edukitzea, praktikan zailtasun ezberdinak sortzen baitira, baina garrantzitsuena zailtasun horiei nola aurre egitean datza. Mugimenduetan kontraesanak uneoro ematen dira, eta ezinbestekoa da kontraesanekin lanean aritzea, alternatiba sendoago bat sortzeko eta alternatiba sortu ahala kontraesanak ahalik eta gehien murrizteko; mugimenduan pertsona batek baino gehiagok parte hartzen baldin badu beti kontraesanak egongo dira, nahiz eta oso txikiak izan, gakoa kontraesan horrek gainditzean dagoelarik.

## 6. AZKEN GOGOETA

Ikerketa guztian zehar galdera berbera eduki dut buruan: Zein esparrutan zentratu beharko litzateke intersekzionalitatea? Ipar Amerikako testuinguruan soilik ala mundu osora zabaltzeko beharko litzateke? Nire ustez pribilegioak, zapalkuntzak bezala, zeharkatzen gaituzten ardatz anitzekoak dira, zeharkatze horrek ezinbestean ardatzaren alde batean edo bestean uzten gaituelarik. Denoi zeharkatzen gaituen heinean pribilegio eta zapalkuntza egoerak edonon aurki ditzakegu, beraz beharrezkoa iruditzen zait intersekzionalitatea munduaren ez ezik norbearen egunerokotasunera zabaltzea.

Interseksionalitatea soilik tresna bat da, gauzak aldatzeko tresna bat, eta tresna bat den heinean tresnari erabilera egokia emango dion pertsonak behar dira. Tresnari erabilera ona eman ezean, alternatiba sendoak eraikitzea are zailagoa izango da, sistemak nahi duenarekin aterako delarik. Tresna ondo erabiltzeko, tresna erabiliko duten pertsonentzat espazio seguruak sortzea ezinbestekoa da, gustura egoteko espazioak sortzea eta mantentzea denon ardura baita. Mugimenduek gizartea aldatzeko helburua dute, eta aldaketa hori emateko ezinbestekoa da mugimenduko partaideak subjektu eraldatzaileak izatea, praktiken subertsio bat ematea eta mugimenduaren barnean etorkizunean izango denaren mikro gizarte bat edukitzea, ondoren mikro- eta makro-erakundeak sortzeko eta barne egitura gizartera estrapolatzeko.

Ikerketan zehar genero, klase eta arraza zapalkuntzak aztertu ditut, baina zapalkuntza horiez gain beste zapalkuntza mota bat ere kontuan hartu dut: Gaztea izateagatik pairatzen dugun zapalkuntza. Biktimismoa alde batera utziz, egia da gazteok jasaten ditugun zapalkuntza ezberdinak are bortitzagoak direla nagusiek jasaten dituztenarekin alderatuta, sistemak bere menpe nahi gaituelako, ahul, denari men eginez, arazorik sortu gabe, eta hori lortzeko zapalkuntzarik basatiena eramaten du aurrera, etorkizun hurbilean txotxongilo batzuk izateko eta arestian aipatutako praktikak erreproduzitzeko. Horren aurrean antolakuntza soilik gelditzen da.

Sistema honen barruan horma asko daude. Horma bakoitzak mugak ezartzen dizkigu, horma bakoitzak zapaldu egiten gaitu, horma bakoitzak ez digu aske izaten uzten. Interseksionalitateak hormak banan-banan higitu beharrean denak aldi berean higitzeko tresna handi bat ematen digu, indarrak batuz eta prozesua erraztuz. Hormak botatzea urte luzeko prozesu bat da, baina higitzen hasita arrakalak loratzen joango dira, eta jendea horma ezberdinen artean preso dagoela ohartuko da. Jendea esnatzen hasiko da, eta esnatzen denean geldiezinak izango gara, ez baitago indar handiagorik kontzientzia askeak baino.

## 7. BIBLIOGRAFIA

Alexander-Floyd, Nikol G. (2012). <<Disappearing acts: reclaiming intersectionality in the social sciences in a post-black feminist era>>, *Feminist Formations*, 24 (1), 1-25.

Bauman, Zygmunt. (2000). *Modernidad líquida*. Cambridge: Polity Press.

Bourdieu, Pierre. (1988). *La distinción. Criterio y bases sociales del gusto*. Madrid: Grupo Santillana Ediciones.

Butler, Judith (2007 [1990]). *El género en disputa: El feminismo y la subversión de la identidad*. Barcelona: Paidós.

Crenshaw, Kimberlé. (1991). Cartografiando los márgenes. *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*, *Stanford Law Review*, 43, 87-121.

- (1989). *Desmarginalizando la Intersección de Raza y Sexo: Una crítica feminista negra a la antidiscriminación Doctrina, Teoría Feminista y Política Antirracista*, University of Chicago Legal Forum, 140, (139-167).

Collins, Patricia Hill. (2009 [1990]). *Black feminist thought: knowledge, power and the politics of empowerment*, Boston: Unwin Hyman.

Davis, Angela Y. (2005 [1981]). *Mujeres, raza y clase*. Madrid:Akal.

Gandarias Goikoetxea, Itziar (2017). <<¿Un neologismo a la moda?>> Repensar la interseccionalidad como herramienta para la articulación política feminista>>, *Investigaciones Feministas*, 8, 73-93.

Garza, Alicia (2014). *A Herstory of the #BlackLivesMatter Movement*, *The Feminist Wire*, <https://www.thefeministwire.com/2014/10/blacklivesmatter-2/>

Gimenez, Martha (2001). *Race, gender and class*, New Orleans: Race, gender and class Journal, 8, 23-33.

Hancock, Ange-Marie (2016). *Intersectionality: an intellectual history*, New York: Oxford University Press.

Jabardo, Mercedes (2012). *Feminismos negros. Una antología*, Madrid: Traficantes de Sueños.

Landeia (2022). *Martxoa-Apirila*, 245.

- *Maiatza-Ekaina*, 246.

Lorde, Audre (2007 [1984]). *Sister Outsiders: essays and speeches*, Trumansburg: Crossing Press.

Lugones, Maria. (1994). <<Purity, impurity and separation>>, *Signs: Journal of Women in Culture and Society*, 19, 479-558.

- (2008). *Colonialidad y género*, Bogotá: Tabula Rasa. 73-101

Martinez Palacios, Jone. (2019). *La interseccionalidad como herramienta analítica para la praxis crítica del Trabajo Social. Reflexiones en torno a la soledad no deseada*. Cuadernos de Trabajo Social, <http://dx.doi.org/10.5209/cuts.65181>

Rodó-Zárate, Maria. (2021). *Interseccionalidad: Desigualdades, lugares y emociones*, Manresa: Edicions Bellaterra.

Taylor, Keeanga-Yamahtta. (2017). *Le renouveau de la révolte noire américaine*, Agone.

The Combahee River Collective. (1981[1977]). *The Combahee River Collective Statement. This bridge called my back: writings by radical women of color*, New York: Kitchen Table, Women of Color Press, 210-218.

Viveros Vigoya, M. (2016). *La interseccionalidad: una aproximación situada a la dominación*. Debate Feminista, <http://dx.doi.org/10.1016/j.df.2016.09.005>

Yuval-Davis, Nira (2011), *The politics of belonging. Intersectional contestations*, Londres: SAGE Publications.

## 8. ERANSKINAK

### 1. Matrakako kideari elkarrizketa

#### **1.- Elkartearen inguruko informazioa**

— Zein da zure erakundearen helburua?

Matraka Eibarko talde feminista da, Neska Gazte taldea, eta gure helburua pixkat gaztetasun eta neska izaera horretatik pairatzen ditugun zapalkuntza ezberdinei aurre egitea da.

— Zein mailatan egiten duzue lan? (Herri, eskualde, probintzia...)

Eibarko neska gazte taldea izanik Eibar mailan egiten dugu lan, baina aldi berean Euskal Herriko Neska Gazteen mugimenduan saretuta dago, herri ezberdinetako neska gazte taldeekin elkarlanak egiten ditugu.

— Beste elkarte batzuekin elkarlanean aritzen zarete?

Eibar mailan herrian dagoen beste talde feminista batekin elkarlanean aritzen gara, eta horrez gain herriko beste eragile ezberdin batzuekin ere aritzen gara. Orain dela gutxi herriko gazte mugimenduko beste eragile batzuekin topaketak antolatu genituen. Eta lehen esan bezala Euskal Herri mailan beste herri batzuetako neska gazte taldeekin ere aritzen gara elkarlanean.

#### **2.- Elkartearen diskurtso ofiziala**

— Zapalkuntza/ardatz nagusi bat identifikatzen duzu?

Neska gazte talde moduan emakume bezala jasaten dugun zapalkuntzan oinarritzen gara, bai neska bai gazte zapalkuntzan, baina kontuan hartzen ditugu ere zapalkuntzen interseksioan dauden zapalkuntza ezberdinak, arraza eta langile izaeren ondorioz, genero eta orientazio disidenteen ondorioz jasa zenitzakeen zapalkuntzak ere kontuan hartzen ditugu.

— Beste zapalkuntza motak kontuan hartzen dira?

Aipatu bezala era batean edo bestean beste zapalkuntzak gure egunerokotasunean presente daude, eta presente dauden heinean kontuan hartu beharreko zapalkuntzak dira.

— Interkonektatuta daudela uste duzu?

Bai, guztiz interkonektatuta daude uste dugu, azkenean zapalkuntzak desberdintasun egoera berberetik ateratzen dira.

— Posible al da bi lanketak aldi berean egitea?

Bai, azkenean ni neska naiz baina ez naiz neska bakarrik, langile prekarioa, gaztea, bollera, bi, trans eta pertsona arrazializatu bat naiz, ez naiz izaera bakarra, ez naiz neska bakarrik. Ez da garrantzitsua bi lanketak aldi berean egitea, baizik eta ezinbestekoa.

— Desberdintasunik al dago gazteek jasaten dituzten zapalkuntzen eta nagusiek jasaten dituzten zapalkuntzen artean?

Azkenean gazte izateagatik arrazoi eta jakintzak kentzen dizkigute, sistema heteropatriarkalak bere sinismen eta balioak guri (gazteei) inposatu nahi dizkigu gero guk hori birproduzitu ahal izateko. Gazteak garen heinean zaurgarritasun egoera batean gaude non sistemak bereganatu nahi gaituen.

### **3.- Diskurtsoa ekintzetan nola gorpuzten den**

— Zer egiten duzue zuen zapalkuntza lantzeko?

Egun *señalatueta*n (martxoak 8, azaroak 25) maniak, kontzentrak, pintadak eta egiten ditugu, horrez gain beste data batzuetan ekintza ezberdinak egin ditugu (San Valentin...). Beste eragileekin tailerrak eta hitzaldiak ere egin ditugu, eta Euskal Herri mailan topaketak, bateraguneak... egin ditugu.

— Eta besteak lantzeko?

LGTBI borrokan ekainak 28an eta maiatzak 17an kontzentrez gain tailerrak, kafe tertuliak egin ditugu.

— Zerbait aldatu beharko zenuketela uste duzu?

Beti dilema horretan aritzen gara, azkenean gure taldean ikusten dugulako neska eta gazte garen heinean talde nahiko normatiboa garela ikusten dugu, genero identitatearen barruan, arrazializaioan... oraindik lanketa nahikoa daukagula ikusten dugu. Horretan ari gara, ekilibrio hori topatu nahian.

#### **4.- Interseksionalitatea elkartean**

— Interseksionalitatearen ideia ezagutzen duzu? Zer iritzi duzu?

Nahiko landu dugun ideia bat da, Matraka barruan lantzen saiatzen garena, oso garrantzitsua eta ezinbestekoa ikusten dugulako ulertzea zapalkuntza ez dela bakarrik emakumea izateagatik edo langile izateagatik edukiko, azkenean sistemak era ezberdin askota zapalduko gaituelako, eta hori lantzea garrantzitsua dela uste dugu. Eta horrez gain ikusteko ere gu neska izanda zapaltzaileak ere izan gaitezkeela, pertsona arrazializatu baten aurrea, pertsona trans baten aurrean...

— Gizarte mugimenduetan integratu behar den ideia bat da? Zer aportatzen du?

Bai, gizarte mugimendu guztietan presente egon beharko zen ideia bat da.

— Interseksionalitatearen ideiak zuen zapalkuntza ardatz nagusitik aldentzen zaituela uste duzu? Ala osagarria dela uste duzu?

Guk osagarria dela uste dugu, ez dakit zein puntutaraino borroka desberdinetan zentratzen bazara zenbat aldendu zaitzakeen zapalkuntza “nagusitik”, baina guretzat erabat osagarria da.

### 2. ELA-ko militanteari elkarrizketa

#### **1.- Elkartearen inguruko informazioa**

— Zein da zure erakundearen helburua? Zer egiten duzu zuk?

Nik ELA barruan alde batetik kanpo formakuntzak egiten ditut kanpora begira, bai herri mugimenduko elkarte ezberdinekin bai mugimendu feministarekin, mugimendu ekologistarekin... Zehazki gai sozialetara begira, ez soilik enpresen arloko gai sozialekin, baizik eta gure lana ere bada diskurtso sozialak ekintzetan sartzea. ELAK orain dela urte batzuk erabaki zuen diskurtso



soziala ekintzetan sartzea, eta horretarako talde bat sortu zen, ni horren barruan kokatzen naizelarik.

— Beste elkarte batzuekin elkarlanean aritzen zarete?

Bai, hori da, denbora guztian zehar beste elkarte batzuekin ibiltzen gara, azkenean EHko eragile bat izanik beste eragile batzuekin harremana eduki beharra dago diagnostiko partekatu bat sortzeko eta borroka ezberdinetan bat egiteko.

## 2.- Elkartearen diskurtso ofiziala

— Zapalkuntza/ardatz nagusi bat identifikatzen duzu?

Nik uste dut interskeksionalitatearen inguruan ari garela, azkenean zapalkuntza asko daude gure barnean. Azkenean klase borrokaren ideiarekin bat egiten dugu, baina kontua da, adibidez, erresidentzietako persona migratu batek, emakume migratu batek nik ez ditudan beste zapalkuntza batzuk izango dituela, edo persona homosexualen kasuan ere berdin. Azkenean, ba bai, *obviamente* langile klasea defendatzen dugu baina ulertzen dugu ere beste zapalkuntza batzuk daudela eta horren bozeramaile izan behar garela.

— Beste zapalkuntza motak kontuan hartzen dira?

Azkenean zapalkuntzak konektatuta daude, eta langile klasearen baitan ere pribilegioak daude (gizon-emakume, homo-hetero, bertako-kanpoko...), orduan nahi ta ez, langile klasea defendatzen dugun heinean beste zapalkuntzak kontuan hartzen dira.

— Posible al da bi lanketak aldi berean egitea?

Bai, *totalmente*, adibidez orain etxebizitzaren inguruko txostena eta kanpaina egin dugu, eta horren barruan sartu dugu, adibidez, soldata arrakalak nolako eragina duen ez bakarrik gure diagnostikoan, baizik eta etxebizitzaren baitan. Ulertzen dugu langile klaseak gatazka bat daukala etxebizitzaren auziarekin baina ulertzen dugu ere emakumeen kasuan, soldata arrakala egonik zure egoera zailagoa izango dela, eta hori gure diskurtsoaren barruan sartzen dugu, berdina pertsona arrazializatuekin, eta honekin zapalkuntza ezberdinen lanketak egiten saiatzen gara.

— Desberdintasunik al dago gazteek jasaten dituzten zapalkuntzen eta nagusiek jasaten dituzten zapalkuntzen artean?

Bai bai, nola ez, azkenean gazteek pairatzen duten prekaritatea, interinietatea... oso ezberdinak dira nagusiek pairatzen dituztenekin alderatuta. Enpresa batean aldizkakoak direnak eta txarren daudenak gazteak dira, eta fijoak direnak nagusiak dira. Osakidetza bezalako instituzio publikoetan gazteak lan kontratu laburrak edukitzen dituzte, nagusiak finkoak diren heinean, eta

gazteak lan merkatura joaten direnean zailtasunak izaten dituzte, zailtasun hori ondoren etxebizitzaren kontuan ikusten delarik, gazteen eros ahalmena eta nagusien eros ahalmena oso desberdina delako.

### **3.- Diskurtsoa ekintzetan nola gorpuzten den**

— Zer egiten duzue zuen zapalkuntza lantzeko?

Saiatzen gara lan egiten dugun esparru guztietan diskurtso hori sartzea, eta adibidez ETT-etan ere gazteak eta pertsona arrazializatuak daude, eta kasu horretan diskurtso sozial bat sartzen saiatzen gara. Leku bakoitzean sistematikoki diagnostiko bat edukitzen saiatzen gara, gero hori lantzeko asmoz. Oso ezberdina da erresidentzietan bizi den egoera edota industriako empresa batean bizi dena, baina saiatzen gara zapalkuntza horiek ardatz izaten eta diagnostiko egoki bat egiten diskurtsoan barneratzeko.

— Eta besteak lantzeko?

Bai, adibidez, orain prekaritate kanpaina abian daukagu, eta honen harira diagnostiko bat egiten ari da. Horrekin greba asko egin dira soldaka arrakalaren harira, adibidez Guggenheimeko garbitzaileek izan duten gatazkan edota etxez etxe ibiltzen direnen kasuan, eta hori salatzeko egin dira. Pertsona arrazializatuaren kasuan orain dela gutxi eduki genuen erregularizazioaren aldeko kanpaina, baina ez da guk egin duguna, babesa eman diegun mugimenduak dira. Uste dut zaila dela pertsona arrazializatuarekin lanean ibiltzea pertsona zuria izanda, baina beharrezkoa da eta egiten saiatzen gara.

— Zailtasun gehiago edukitzen dituzue pertsona arrazializatuengana hurbiltzeko eta lanketa bat egiteko?

Depende, egia da pertsona prekarioak zailagoak direla antolatzeko, eta egia da batzuk mesfidatiagoak direla, baina baditugu delegatuak urteekin kriston lana egin dutenak pertsona arrazializatuarekin, baina zaila da zeren bakoitza herrialde batekoa da, kultura batekoa, hizkuntza bat erabiltzen du eta bere taldera mugatzen da eta hurbiltzea zailagoa da. Azkenean denbora behar da militatzeko eta gogoak eduki behar dira, eta askok ez dute edo ezin dute hona sartu.

— Beste zapalkuntzak lantzeko eta irtenbide bat bilatzeko nahikoa egiten duzuela uste al duzu?

Nik uste dut ezetz, saiatzen ari garela uste dut, azken urteetan asko aurreratu da, asko aldatu da sindikatuaren egoera eta diskurtsoa, eta prozesu horretan gaude. Erraza da feministak garela esatea, baina autokritika egin behar da gehiago egin genezakeelako. Prozesuan gaude eta gutxinaka-gutxinaka interseksionalitatearen ideiarra hurbiltzen ari garela uste dut. Bestalde aldaketa generazionala dago sindikatuan eta horrek nahitaez aldaketak dakartza. Orain dela urte

pare bat sindikatuko genero azterketa bat egin zen eta diagnostiko *bastante lamentable* bat atera zen, sektore ultramaskulinizatu bat zela ikusi zelarik, eta horren harira aldaketak eman dira eta ematen ari dira aldatzeko asmoz.

— Zerbait aldatu beharko zenuketela uste duzu?

Aldaketak ematen ari dira eta asko nabaritzen da ELAn dauden perfil ezberdinetan; geroz eta emakume gehiago gaude estrukturan eta erabakietan. Lehen ezinezkoa izango litzateke soldata arrakalaren inguruan lanketa bat egitea, gaur egun posible da eta egin dugu, emakumeen enpoderazio bat ahalduz. Ia 400 pertsona gaude estrukturan, eta hor aldaketak ematea ez da erraza, mantsok dira aldaketak baina prozesuan gaude.

#### **4.- Interseksionalitatea elkartean**

— Interseksionalitatearen ideia ezagutzen duzu? Zer iritzi duzu?

Nik ezagutzen dudala uste dut, beharrezkoa dela uste dut, azken urteetan ikusi dugu mugimendu feministarekin zer gertatu den, guztiok betaurreko moreak jarri ditugu gatazka guztiak ikusteko eta ez bakarrik klase zapalkuntza ikusteko, eta orain beste ikuspegi batzuk gehituz goaz, heteronormatibitatea edota arraza zapalkuntza aztertzeko. Azkenean interseksionalitateak gizartearen egoeraren diagnostiko egoki bat egitea ahalbidetzen du, langile klasearen baitan zapalkuntza bakarra dagoela uste badugu diagnostiko oso eskasa egiten dugu.

— Gizarte mugimenduetan integratu behar den ideia bat da? Zer aportatzen du?

Bai, baina egia esan oso gutxi dagoen ideia bat da, azkenean militantzia esparruan pertsona perfil antzekoa topatzen duzu, oso pertsona prekario, arrazializatu gutxi... eta gizarte mugimenduetan ez da ikuspegi hori isladatzen. Askotan gizarte mugimenduetan predikatzen diren diskurtsoak ez dira praktikara pasatzen.

— Nola integratzen duzu zuen elkartean?

Azkenean betaurreko berriak jartzen saiatzen gara diagnostiko berri eta zehatzagoak egiteko, bai ETT-en kontuan, bai garbitzaileen kontuan... Interseksionalitatearen ideiarekin ikuspegiak bateratzen saiatzen gara diagnostiko egokiak egiteko, oso desberdina delako beste egunean Araban egon zen metalaren greba erresidentzietako langileekin alderatuta edota garbitzaileen kasuan, eta analisi hori sindikatuaren baitan egitea beharrezkoa da.

— Interseksionalitatearen ideiak zuen zapalkuntza ardatz nagusitik aldentzen zaituela uste duzu? Ala osagarria dela uste duzu?

Horren adibide dira eragile batzuek egiten dituzten diskurtsoak, eta nik uste dut diskurtso hori pribilejio batetik idatzita dagoela uste dut, azkenean langile klaseko pertsona guztiek ez baitute errealitate berdina, eta sindikatutik interseksionalitatearen ideiarekin zapalkuntza denak lantzen saiatzen gara, azkenean zapalkuntza denak kontuan hartzen ez badituzu analisi arriskutsu bat egiten duzulako, ez baitator bat errealitatearekin.

### 3. SOS Arrazakeriako gazte bati elkarrizketa

#### 1.- Información sobre la Asociación

— ¿Cuál es el objetivo de su organización?

El objetivo de SOS Racismo Bizkaia es luchar contra el racismo y la xenofobia en general, pero tiene dos subobjetivos que van relacionados con eso que son hacer denuncias, ayudando a nivel legal, al juzgado a personas que han sufrido ataques racistas y por otro lado hacer sensibilización a la sociedad en general.

*Bizkaiko SOS Arrazakeriaren helburua arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka oro har borrokatzea da, baina bi azpihelburu ditu: salaketak egitea, eraso arrazistak jasan dituzten pertsonen epaitegiari lege-mailan lagunduz, eta, bestetik, gizartea oro har sentibilizatzea.*

— ¿En qué nivel trabajan? (Localidad, comarca, provincia)

Pertenecemos a una federación a nivel Estatal y a nosotros nos corresponde el de Bizkaia.

*Estatu mailako federazio baten barnean gaude, guk Bizkaia mailan lan egiten dugularik.*

— ¿Colaboran con otras asociaciones?

Colaboramos con otras entidades, ya sean de racismo u otros aspectos.

*Beste elkarte batzuekin elkarlanean aritzen gara, beste zapalkuntza batzuk lantzen dituzten elkartei ahal den heinean laguntza ematen.*

#### 2.- El discurso oficial de la asociación

— ¿Identifica una opresión/eje central?

Sí, que sería la raza, pero también trabajamos más allá, con el tema de la etnia, la religión... Todo lo que involucra el racismo.

*Bai, arraza litzateke, baina haratago ere lan egiten dugu, etnia, erlijioa, arrazismoa inplikatzeko duen guztia.*

— ¿Se tienen en cuenta otros tipos de opresión?

Claro que se tienen en cuenta, las opresiones que sufre una mujer racializada son muchos más que los que sufre un hombre ya que le intercede el género. Aquí atendemos a cualquier persona que se ha sentido discriminada.

*Jakina, kontuan hartzen direla, emakume arrazializatu batek jasaten dituen zapalkuntzak gizon batek jasaten dituenak baino askoz gehiago dira, generoa tartean sartzen zaiolako. Hemen diskriminatuta sentitu den edonori ematen diogu arreta.*

— ¿Creéis que las opresiones están interconectadas?

Nosotras creemos que hay una conexión, sobre todo en el ámbito de las mujeres, sobre todo hay ahora una corriente que trata de hablar de un feminismo que no sea hegemónico, si no que sea un feminismo que involucre el concepto de raza porque se viene desde hace mucho tiempo hablando de autoras feministas blancas, centrándose en el heteropatriarcado, pero no se tratan temas que tienen que ver con el racismo que ejercen las mujeres blancas sobre las mujeres racializadas.

*Gure ustez, lotura bat dago, batez ere emakumeen esparruan, batez ere orain joera bat dago hegemonikoa ez den feminismoaz hitz egiten saiatzen dena, arrazaren kontzeptua barne hartzen duen feminismoaz, aspalditik hitz egiten baita egile feminista zuriez, heteropatriarkatuan zentratuz, baina ez dira jorratzen emakume zuriek emakume arrazializatuak duten arrazakeriarekin zerikusia duten gaiak.*

— ¿Hay diferencias entre las opresiones que sufren los jóvenes y las que sufren los mayores?

Sí que percibimos que las opresión que sufren los jóvenes son diferentes comparadas con las que sufren los mayores. En el caso de los -hombres- jóvenes está más relacionado con el racismo policial, y en el caso de las personas mayores se centra más en el tema de los derechos, de la discriminación cotidiana.

*Ikusten dugu gazteek jasaten dituzten zapalkuntzak eta adinekoek jasaten dituztenak desberdinak direla. Gizon gazteen kasuan, lotura handiagoa du poliziaren arrazakeriarekin, eta adinekoen kasuan gehiago zentratzen da eskubideen gaian, eguneroko diskriminazioan.*

### **3.- Cómo se encarna el discurso en las acciones**

— ¿Qué hacen para trabajar su opresión?

En las campañas de sensibilización que realizamos, intentamos no centrarnos solo en un colectivo concreto, sino que intentamos abarcar todos los grupos (religión, etnia...). Intentamos que todas las personas que toman parte en el proceso se sientan integradas. Tratamos incluir todas las miradas sobre esta concepción, porque siempre hablamos desde este norte global sobre el racismo, pero ese racismo que se sufre tiene un abanico muy grande de personas, ya sean personas de América del Sur, América Central, Asia o África; A veces se interpreta África como casi fuese un país, pero África es un continente lleno de lenguas,

creencias, religiones, etnias... y tratamos de abarcar la mayor gente posible dentro de las campañas que realizamos.

*Egiten ditugun sentsibilizazio-kanpainetan, saiatzen gara ez bakarrik kolektibo jakin batean zentratzen, baizik eta talde guztiak hartzen saiatzen gara (erlijioa, etnia). Prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiak integratuta senti daitezen saiatzen gara. Ikuspegi horri buruzko begirada guztiak sartzen saiatzen gara; beti hitz egiten baitugu ipar global honetatik arrazakeriari buruz, baina jasaten den arrazakeria horrek pertsona ugariri eragiten die, Hego Amerikako, Erdialdeko Amerikako, Asiako edo Afrikako pertsonak izan daitezkeelarik, esaterako; batzuetan Afrika ia herrialde bat balitz bezala interpretatzen da, baina Afrika hizkuntzaz, sinesmenez, erlijioz, etniaz betetako kontinentea da, eta hau kontuan hartuta ahalik eta jende gehien hartzen saiatzen gara egiten ditugun kanpainetan.*

— ¿Y para trabajar las demás opresiones?

No hacemos nada en concreto ya que creemos que con el trabajo que realizamos ya sea con las campañas de sensibilización u otros aspectos tratamos opresiones que van más allá de la raza.

*Ez dugu ezer zehatzik egiten, uste baitugu sentsibilizazio-kanpainekin edo beste alderdi batzuekin egiten dugun lanarekin arrazatik harago doazen zapalkuntzak jorratzen ditugula.*

#### **4.- Interseccionalidad en la asociación**

— ¿Conocéis la idea de la interseccionalidad? ¿Qué opinión os merece?

Yo creo que siempre hay que tomarla en cuenta, como veníamos hablando es distinto ser una mujer que sufre una opresión del sistema heteropatriarcal pero también existe para nosotras el tema racista. Nosotras tenemos un discurso muy centrado en el anticapitalismo, antirracismo, contra este sistema heteropatriarcal; trabajamos sobre un triángulo donde se generan todas las opresiones que existen actualmente en este sistema. Somos conscientes que tenemos que tener en cuenta la clase, el género, la etnia, el origen... ya que cada cosa trae consigo distintas opresiones.

*Nik uste dut beti hartu behar dela kontuan; esan bezala, desberdina da sistema heteropatriarkalaren zapalkuntza jasaten duen emakumea izatea, baina guretzat ere badago gai arrazista. Guk sistema heteropatriarkal horren aurkako antikapitalismoan, antirrazismoan, oso zentratutako diskurtsoa dugu; gaur egun sistema horretan dauden zapalkuntza guztiak sortzen diren triangelu batean lan egiten dugu. Badakigu klasea, generoa, etnia eta jatorria kontuan hartu behar ditugula, gauza bakoitzak zapalkuntza desberdinak dakartza eta.*

— ¿Creéis que es una idea que hay que integrar en los movimientos sociales? ¿Qué aporta?

Claro que sí, 100%, como te digo, para nosotras es muy importante que este integrado para conocer y tratar distintas sensibilidades que a veces nos olvidamos que existen, ya que nos aporta otra mirada que en condiciones normales quizás no tendríamos.

*Jakina, % 100, esan dizudan bezala, guretzat oso garrantzitsua da integratuta egotea, batzuetan ahaztu egiten gara existitzen sentsibilitate desberdez, hauek ezagutu eta tratatzeko aukera ematen digularik, baldintza normaletan agian izango ez genukeen beste begirada bat ematen baitigu.*

— ¿Creéis que la idea de interseccionalidad os aparta de vuestro eje central de opresión?

Yo creo que se pueden trabajar conjuntamente, está claro que nosotras, por llamarnos SOS Racismo, vamos con un objetivo claro, pero dentro de esa lucha van incluidos diversos discursos contra el sistema heteropatriarcal, e intentamos trabajar con otras asociaciones que denuncian otros tipos de opresión. No nos podemos olvidar del género, de la etnia, de la clase, de todo lo que afecta a esta interseccionalidad, que tendrá un abanico de opresiones muy grande.

*Nik uste dut elkarrekin lan egin daitekeela, argi dago gu, SOS Arrazakeria deitzeagatik, helburu argi batekin goazela, baina borroka horren barruan sistema heteropatriarkalaren aurkako hainbat diskurtso sartzen dira, eta beste zapalkuntza mota batzuk salatzen dituzten beste elkarte batzuekin lan egiten saiatzen gara. Ezin dugu ahaztu generoa, etnia, klasea, interseksionalitate horri eragiten dion guztia, zapalkuntza-aukera handia izango baitu.*